



KONFEKOOP

Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa
Confederación de Cooperativas de Euskadi

MEMORIA

2010

AURKIBIDEA

AURKIBIDEA

	<u>Orr.</u>
GIZARTE ORGANOAK ETA KOOPERATIBEN ERROLDA.....	9.
SARRERA	15.
1. Jarduerak Euskal Autonomia Erkidegoan.....	19.
1.1. Eusko Jaurlaritzarekin sinatutako Egitasmo eta Lankidetzak	
Hitzarmenetik eratorritako ekimenak.....	21.
1.2. Legegintza eta araugintza prozesuak	23.
• Euskadiko Kooperatiben Legearen erreforma	23.
• Jarduerak Euskadiko Kooperatiben Erregistroan.....	23.
1.3. Elkar-lankidetzarako erakundeak.....	24.
• Promokoop Fundazioa	24.
• Oinarri EBB	25.
• Elkar-Lan Koop. E.....	26.
• Elkar Ikertegia Koop.E.	27.
1.4. Gizarte Ekonomiako erakundeak	28.
• EKGK - Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua	28.
• GEEB - Gizarte Ekonomiaren Euskal Behatokia.....	29.
1.5. Ordezkaritza instituzionalak	30.
• EGK - Ekonomia eta Gizarte Kontseilua	30.
• GZEK - Gizarte Zerbitzuetako Euskal Kontseilua	33.
• ISEK - Industria Segurtasunerako Euskal Kontseilua	38.
• GEK - Gizarteratzeko Euskal Kontseilua	39.
• Familiaren Batzorde Iraunkor Sektoriala	40.
• OSALAN - Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea.....	41.
• EUSTAT - Euskal Estatistika Erakundea.....	42.
• KONTSUMOBIDE - Kontsumoko Euskal Institutua.....	42.
• LANBIDE - Euskal Enplegu Zerbitzua.....	42.
• ENK - Euskadiko Nazioartekotze Kontseilua.....	44.
• Euskadiko immigranteen integrazio eta partaidetzarako foroa	44.
1.6. Komunikazioa	45.
• Webgunea	45.
• Forokoop	46.
• Urteko Prentsaurrekoa.....	46.
• "Talaian Enpresagintza" saioa	47.

• “Kooperatiba-enpresa” saioa	47.
• Komunikazio Plana	47.
• Artikuluak eta Elkarrizketak Hedabideetan.....	48.
1.7. Kooperatibak sustatzeko programak	49.
• EGE - Enpresen Gizarte Erantzukizuna	49.
• Euskara	50.
• Innobasque	51.
• KNE - Kooperatiben Nazioarteko Eguna.....	52.
• KGOK - Kooperatiben Gobernu Onaren Kodea	52.
• Mundukide Fundazioa.....	53.
• Hazilur SArekin eman daitekeen lankidetzaren gaineko analisisa	54.
• Ordezkaritza instituzionaleko jarduerak	54.
1.8. Hitzarmenak eta lankidetzak	58.
• Alecoop Koop.E.	58.
• Euskaltel	58.
• Garlan Koop.E.....	59.
2. Jarduerak Estatuan	61.
2.1. CEPES - Gizarte Ekonomiako Espainiako Enpresa-konfederazioa.....	63.
3. Jarduerak Nazioartean	69.
3.1. NAK - Nazioarteko Kooperatiba Aliantza	71.
3.2. Europako erakundeetako ordezkaritza CEPESen izenean.....	72.
• EUCC - Cooperatives Europe	72.
• SEE - Social Economy Europe	73.
3.3. TEES Proiektua (Gizarte Ekonomia eta Ekonomia Solidarioaren Mugaz gaindiko sarea)	74.
4. Ikuskatutako Kontuak.....	75.

GLOSARIOA

NAK	Nazioarteko Kooperatiba Aliantza
ANEL	Nafarroako Lan Enpresen Elkartea
BITARTU	Kooperatibetako Gatazken judizioz kanpoko Ebazpenen Euskal Zerbitzua
CAEPE	Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari laguntzeko Euskal Kontseilua
CEPES	Gizarte Ekonomiako Espainiako Enpresa-konfederazioa
CERSE	Enpresen Gizarte Erantzukizunaren Estatuko Kontseilua
EGK	Ekonomia eta Gizarte Kontseilua
CESE	Europako Ekonomia eta Gizarte Kontseilua
CICOPA	Lan Elkarteen Kooperatiben Nazioarteko Konfederazioa
CIPES	Sozietateen Azkentze-prozesuetan Esku-hartzeko Batzordea
ENK	Euskadiko Nazioartekotze Kontseilua
COFIP	Kooperatiben sustapen eta prestakuntzarako derrigorrezko ekarpena
CRESS Aquitaine	Gizarte Ekonomia eta Ekonomia Solidarioaren Eskualdeko Ganbera (Akitania)
EKGK	Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua
GZEK	Gizarte Zerbitzuetako Euskal Kontseilua
ISEK	Industria Segurtasunerako Euskal Kontseilua
GEK	Gizarteratzeko Euskal Kontseilua
EUCC	Cooperatives Europe

EUSTAT	Euskal Estatistika Erakundea
ELHABE	Euskal Herriko Lan Babestuaren Elkartea
FOARSE	Enpresen Gizarte Erantzukizunerako Araba Foroa
FOROKOOP	Kooperatiba Eztabaidarako Foroa
GEZKI	Euskal Herriko Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboaren Institutua
GRI	Global Reporting Initiative
HOBETUZ	Langileen Prestakuntzarako Euskal Fundazioa
KONTSUMOBIDE	Kontsumoko Euskal Institutua
MONDRAGON	Mondragon Korporazio Taldea
MU	Mondragon Unibertsitatea
OSALAN	Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea
PROMOKOOP	Kooperatibak Sustatzeko Fundazioa
EGE	Enpresen Gizarte Erantzukizuna
SEE	Social Economy Europe
KIEZ	Kooperatiba Ikuskaritzako Euskal Zerbitzua
TESS	Gizarte Ekonomia eta Ekonomia Solidarioaren Mugaz gaindiko sarea

GIZARTE ORGANOAK ETA KOOPERATIBEN ERROLDA

GIZARTE ORGANOKAK

ARTEZKARITZA KONTSEILUA

2010.12.31n

PRESIDENTEA:

Patxi Ormazabal Zamakona

ERKIDE

PRESIDENTEORDEA:

Andoni Zendoia Alkorta

ERKIDE

IDAZKARIA:

Alfredo Montoya Estíbalez

ENKF

KONTSEILARIAK:

Juan Maria Concha Azpiroz

ERKIDE

Eduardo Fernández Bodegas

ERKIDE

Maria Ángeles García de Celis

ERKIDE

Pablo Larrabide Bilbao

ERKIDE

Jose Miguel Mera Bengoa

EKKF

Jon Andoni Ruiz de Zarate Agirrezabalaga

EKKF

Gonzalo Saez de Ibarra Mtz. de Estarrona

EGKF

Iñaki Sainz Oxinaga

ENKF

Martin Uriarte Zugazabeitia

ENKF

KOOPERATIBEN ERROLDA

❖	2010eko abenduaren 31n federatutako kooperatibak 823 dira (Kooperatiben Erregistroan 1.746 Koop.E. eta 2.035 Koop.E. Txiki daude):	
➤	Kooperatiba motaren arabera:	<i>(Koop Erreg)</i>
▪	Lan Elkartek	659..... 1.115+203
▪	Irakaskuntza.....	79.....94
▪	Nekazaritza	68.....105
▪	Kontsumoa.....	9.....33
▪	Garraiolariak.....	6.....44
▪	Kreditua	2.....2
▪	Etxebizitzak.....270
▪	Beste batzuk83
➤	Probintziak:	
▪	Araba	139
▪	Bizkaia.....	304
▪	Gipuzkoa	380
➤	Ekoizpen-sektorea:	
▪	Lehen sektorea edo zuzeneko produktua	11
▪	Bigarren sektorea edo eraldaketa	372
▪	Hirugarren sektorea edo zerbitzuak	440
❖	Bazkideak guztira	536.776
➤	Nekazariak	9.940
➤	Lan Elkarreetakoak	38.476
➤	Kontsumokoak.....	436.031
➤	Kreditukoak.....	6.180
➤	Gurasoak.....	46.146
❖	Langileak guztira	55.754
▪	Lan-bazkideak	38.476
▪	Bazkide ez diren langileak.....	17.278
▪	Gizonak	28.934
▪	Emakumeak	26.820
❖	Fakturazioa	9.524 ₁ €
❖	Esportazioa	4.240 ₁ €

1. Lehen sektorea	11	2. Bigarren sektorea.....	372	3. Hirugarren sektorea.....	440
1.1. Nekazaritza.....	8	2.1. Eraikuntza.....	85	3.1. Merkataritza	51
1.2. Basogintza	0	2.2. Energia.....	0	3.2. Aholkularitza	48
1.3. Abeltzaintza	3	2.3. Kontsumoko ondasunen fabrikazioa	23	3.3. Hezkuntza eta prestakuntza	96
1.4. Meatzaritza	0	2.4. Elikagai-industria	43	3.4. Finantzak	2
1.5. Arrantza.....	0	2.5. Arte Grafikoen industria.....	24	3.5. Ostalaritza.....	9
		2.6. Artisautza	3	3.6. Informazioa eta komunikazioa	22
		2.7. Automobilgintza	18	3.7. Informatika eta teknologia	22
		2.8. Kautxu eta plastikoaren industria	6	3.8. Instalazioak eta konponketak	17
		2.9. Industria elektronikoa	44	3.9. Garbiketa	8
		2.10. Zur-industria	20	3.10. Ingurumena eta lorezaintza	10
		2.11. Makina-erremintaren industria..	36	3.11. Aisia eta kultura	24
		2.12. Birziklatzearen industria.....	10	3.12. Osasuna eta mendekotasuna	23
		2.13. Sidero-metalurgia industria	55	3.13. Aseguruak	0
		2.14. Ehungintza.....	5	3.14. Hizkuntza zerbitzuak	10
				3.15. Enpresentzako zerbitzuak	36
				3.16. Gizarte-arlokoak	5
				3.17. Garraioa eta banaketa	49
				3.18. Turismoa	8

SARRERA

SARRERA

2010a urte zaila izan da esparru ekonomikoan. Espainia, 2010ean BPGaren % 0,1eko murrizketarekin, Grezia zein Irlanda edo Portugal baino hobeto dago, baina zor pribatu eskerga dauka, epe ertainean jaitsiko ez den langabezia-tasa oso altua (% 20tik gora) eta higiezinaren sektorearen porrot nabarmena bizi du. Bankuen ahalegin-frogak positiboak izan ziren, eta lehiakortasunak hobera egin du. Egindako doiketak gogorak izan badira ere, baliteke oraindik zorrotzagoak izan behar izatea.

Dolarrak balioa galdu du. Txinako ekonomiak, aldiz, bizi-bizirik dagoela erakusten jarraitzen du.

Munduko banku zentral nagusiak (estatubatuarrak, europarrak, britainiarrak eta japoniarrak) elkarren ondoan egon dira krisi osoan zehar, eta dirua injektatzeko makinari eragin eta eragin aritu dira. Bestalde, arazoak dituzten herrialdeen zorra modu egokian berrantolatze helburu duen prozesua Europaren mahai gainean jartzea lortu du Alemaniak.

Espainian, industriak, batez ere eraikuntzak, geldirik jarraitzen duenez, kanpoko sektoreak eroriko berri bat saihestu du: esportazioek gora egin dute nabarmen, inportazioek izan duten beherakadaren aldean. Azken batean, espainiar berreskuratze geldoari kalte handia egiten dion mehatxu larri batekin iritsi gara 2010eko amaiera honetara: autonomo eta ETE-entzako kredituaren murrizketa. Horrez gain, zalantzasu beteriko etorkizuna are gehiago belztera dator maileguak garestitzeko dagoen aukera benetakoa.

Euskal Herrian, 2010eko ekitaldiaren itxierako adierazle ekonomikoak Estatukoak baino hobekak izan dira, eta egia esan, euskal familiak ezkortasuna gainetik kentzeko bidean daude. Euskal Herriko Aurrezki-kutxen Federazioak Euskal Herriko Kontsumitzailearen konfiantza-indizearen (ICC) 2010eko laugarren hiruhileko datuak argitaratu ditu, eta 89ko baliora iritsi da. Espainiakoaren gainetik dago (80) eta Europar Batasuneko datuaren pare (89). Hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta 8 puntu egin du gora, eta bigarren balio onena da krisia hasi zenetik. Hala ere, 100etik behera dago oraindik, hots, neutraltasunaren mugatik behera.

Testuinguru makroekonomiko horretan, euskal kooperatibismoaren helburu legitimoak defendatzeko bere xede soziala garatzen jarraitu du KONFEKOOPEK. Konfederazioaren ordezkariak euskal kooperatibismoaren interesak defenditu dituzte ordezkaritza daukaten instituzio guztietan (EUSKAL EGKn, OSALANen, EUSTATen, Gizarteratzeko Batzorde Iraunkorrea, EGE Foroetan...), eta konfederazioak beste zenbait instituziotan egoteko lan egin du, hala nola Euskadiko Nazioartekotze Kontseiluan edo LANBIDE - Euskal Enplegu Zerbitzuan, enpresen nazioartekotzea, ekintzailtzaren sustapena edo kalitatezko lan egonkorraren sorrera bezalako gai garrantzitsuetan Kooperatiben ahotsa eta lehentasunak presente egon zitezten.

Bestalde, 2010ean KONFEKOOPEK kooperatibak sustatzeko hainbat programa eta kooperatibismoaren beste eragileekin eta oro har Gizarte Ekonomiarekin elkar-lankidetzan aritzeko proiektuak garatu ditu.

2010ean kooperatiba berri ugari sortu dira: 173 kooperatiba eratu dira hain zuzen ere (129 Lan Elkartea, 29 Etxebizitzaren kooperatiba, 6 Nekazaritza arlokoak, 4 Mistoak, 3 Bigarren Mailakoak eta 2 Enpresa-zerbitzuetakoak). 2009arekin alderatuta, 131 kooperatiba berri gehiago sortu dira. Kontuan hartu behar da, urte horretan ere aurreko urteetako kopurua gainditu zela.

2010ean kooperatibak ezagutarazteko ekimenak egin dira, bai eta hainbat kanpaina hedabideetan ere, joera honek aldeko bilakaera izan dezan hurrengo ekitaldietan ere.

1. JARDUERAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

1.1. EUSKO JAURLARITZAREKIN SINATUTAKO EGITASMO ETA LANKIDETZA HITZARMENETIK ERATORRITAKO EKIMENAK

Eusko Jaurlaritzak, Euskadiko Kooperatiben Konfederazioak eta Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak sinatutako Egitasmo eta Lankidetzaren hitzarmena Euskal Autonomia Erkidegoan kooperatibismoa sustatu eta garatzeko lan-tresna oso egokia izan da azken urteotan; izan ere, sustapen-politikak nahiz Kooperatibei eragiten zieten hainbat arazoren konponbideak egoki bideratzeko aproposa izan baita.

Egitasmo eta Lankidetzaren hitzarmenaren ondorioz, besteak beste, ondoko lorpenak eman dira:

- Konfederazioak Industria Segurtasuneko Euskal Kontseiluko eta Kontsumoko Euskal Institutuko gobernu-organoetan ordezkari izan da.
- Kooperatiba sortu berrien, hau da, lau urtetik beherako kooperatiben inbertsioak finantzatzeko lerro berezi bat lortu da.
- Eusko Legebiltzarrean "Euskadiko Kooperatiba Sozietate txikien legea" onartu da. Lege horrek bultzada garrantzitsua eman dio Euskadin Kooperatiben sustapenari, eta Delawere efektua sortu du (AEBtako Estatu txiki bat da Delawere, mundu osoan ezaguna sozietate gehien sortzen diren lekua delako, alde handiz gainera).
- Gizarte Ekonomiako elkarre-egiturei laguntzeko programa bideratu da, batez ere elkarre-egitura horien benetako adierazgarritasunean oinarritutakoa.
- "Euskadiko Kooperatiben Legearen bigarren aldaketarako abenduaren 1eko 8/2006 Legea". Kooperatibetako bazkide berriek diru-itzulketak gauzatzeko daukaten eskubidea NIC 32ak nazioartean ezarri dituen kontabilitate-irizpideekin bateratzea lortu da horrela. Hortaz, kapital sozialari derrigorrez zein norbere borondatez egindako ekarpenak norbere baliabide gisa kontabilizatu daitezke, kooperatiben balio eta printzipioak edota Euskadiko Kooperatiben Legea urratu gabe.
- Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren aurrekontuko zuzkidura handitu da.

Gai horiek guztiak eta beste hainbat Euskal Kooperatiben Mugimenduak Eusko Jaurlaritzarekin sinatutako hitzarmenaren fruituak izan dira.

Hori bai, uneotan Hitzarmena geldirik dago, eta 2010ean ez aurrera ez atzera ibili gara Egitasmo eta Lankidetzaren Hitzarmenari dagokionez.

KONFEKOOP saiatu da Eusko Jaurlaritzako arduradun berriekin harremana berreskuratzen, Egitasmo Hitzarmenean jasotako lanari berrekiteko. Izan ere, mahai gainean jarritako gai ugari oraindik behar bezala itxi gabe daude. Hala ere, harremanak berreskuratzeko lanen emaitza ez da ona izan.

1.2. LEGEGINTZA ETA ARAUGINTZA PROZESUAK

ZERGA-ARAUEN ERREFORMA

Estatuan, estatuko kooperatibismoaren elkarteak (COCETA, CCA, UECOE eta HISPACOO) eta Gizarte Ekonomiako elkarteak (CEPES) Kooperatibei ezartzen zaien Estatutu Fiskalaren aldaketa bati ekiteko dauden aukerak eta komenigarritasuna aztertzen ari dira. Estatutu hori "Kooperatiben Zerga-erregimenari buruzko 20/90 Legean" jasota dago. KONFEKOOP prozesu horren gainean egon da, eta aldeko aurrerapen esanguratsuak gertatzen badira, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Historikoetan ezartzen den zergei buruzko legedira ekartzeko lan egingo du.

Nolanahi ere, 2010ean ez da batere aurrerapenik egin.

KOOPERATIBAK ERATZEA ETA KONTUAK GORDAILATZEA BIDE TELEMATIKOEN BIDEZ

Euskadiko Kooperatiben Erregistroak kooperatiba berriak eratzeko planteamendu teknologiko interesgarri bat landu du. Prozesu horri esker, sozietateak eratzeko tramite administratiboak bide telematikoen bidez egin ahal izango dira, eta horrela, Notarioek bide hori erabiltzeko aukera izango dute eratze-eskritura publikoak Kooperatiben Erregistroan aurkezteko.

Horretarako, EJIEn, Eusko Jaurlaritzaren Informatika Zentroan, lanean ari dira, eta 2011n prozedura hori erabilgarri egotea espero da.

KONFEKOOPEK prozesu horren jarraipena egin du.

1.3. ELKAR-LANKIDETZARAKO ERAKUNDEAK

Atal honetan KONFEKOOPEN partaidetza daukaten entitateen zerrenda jasotzen da. Haietako bakoitza behar edo proiektu zehatz bati erantzuteko diseinatu eta sortu zen elkar-lankidetzaz jardueraren adierazpena da.

PROMOKOOP FUNDAZIOA (KOOPERATIBA-SUSTAPENERAKO FONDOA)

PROMOKOOP FUNDAZIOA (Kooperatiba-sustapenerako Fondoa) MONDRAGON eta KONFEKOOPEN arteko hitzarmen baten ondorioz sortu zen, kooperatibizazio aukerak izan ditzaketen sektoreetan kooperatibismoa bultzatzeko.

Horretarako, Kooperatiben Sustapen eta Prestakuntzarako Derrigorrezko Ekarpenetara (COFIP) Kooperatibek egiten dituzten diru-ekarpenen zati bat komunean jarri eta kooperatiben sustapenera bideratzen da.

Krisi ekonomikoaren eragina nabaritu du PROMOKOOPek bere bigarren urte honetan. Horren ondorioz, Kooperatiben zati handi baten COFIPa murriztu da, eta horrek sustapenera bideratu ahal izan den fondoaren bolumenean eragin negatiboa izan du. Nolanahi ere, aurrerapen garrantzitsuak ere eman dira, PROMOKOOPek lankidetzaz hitzarmenak sinatu baititu hainbat Kooperatiba edo Kooperatiba-talderekin.

2010ean 2 sustapen-proiektutan parte hartu du:

Lehen, mendekotasunaren esparrukoa izan da, eta SERVICIOS SOCIALES INTEGRADOS KOOP.E.rekin lankidetzan aritu da.

Sektore horren kooperatibizazio aukerak aztertu dira, eta behin azterketa amaituta, sektorean kooperatibak sustatzeko martxan jarri daitezkeen ekimenak erabakiko dira.

Bigarrena, birziklapenaren eta ingurumenarekin loturiko jardueren esparrukoa izan da; Koopera Kooperatiba-taldearekin lankidetzan lanean ari da esparru horretan.

Hainbat dira lantzen ari diren proiektuak. Horien artean, ondoko arlo hauen ingurukoak nabarmendu daitezke: bioeraikuntza, irisgarritasuna edo sektorean

lanean diharduten eta euren jarduerak enpresaren esparrura eramateko asmoa izan dezaketen elkarteen kooperatibizazioa.

OINARRI EBB

Finantza-merkatuak bizi duen egoeraren ondorioz, likidezia nabarmen murriztu da. Hori dela eta, enpresek, batez ere tamaina txikikoek, kreditua eskuratzeko zailtasun handiak izan dituzte.

Likidezia faltaren aurrean, finantza-entitateek finantzaketa eskuratzeko baldintzak zaildu dituzte, finantza-kostuak eta berme-eskaerak handituta, itzulketa epeak murriztuta eta aurretik onartuta zeuden finantza-lerroak berritzeko zailtasunak jarrita.

Testuinguru horretan, Oinarri EBBk paper garrantzitsua jokatu du Federatutako kooperatiben finantza-sendotasunaren alde. Oinarri EBBren abalarekin, Eusko Jaurlaritzak likidezia eman dio finantza-entitateari, eta azken horrek likidezia hori Kooperatiba onuradunei helarazi die; horrela, finantza-entitateek kreditua murrizteko zituzten bi oztopoei (arriskua eta likidezia) irtenbidea eman die.

2010ean, Oinarri EBBk 80 milioi eurotik gorako eragiketa-bolumena formalizatu du. Sortu zenetik gaur arte, beraz, 572 milioi euroko abalak eman ditu, Euskadin 330 milioi euroko inbertsio-proiektuak, 144 milioi euroko zirkulatzailer beharrak eta 180 milioi euroko abal-teknikoak finantzatzeko. Horrek guztiak 47.680 enplegutuan izan du eragina. Abalatutako kopuru guztiaren % 60 Gizarte Ekonomiara bideratu da.

Hazkunde prozesu horretan, dagoeneko 2.800 dira "*bazkide partaide*" diren edo bere zerbitzuak eskuratzeko eskubidea daukaten enpresak. Aurreikuspenen arabera, kopuru horrek goranzko joerari eutsiko dio.

Finantza-sistemak bizi duen egoera okerra gorabehera, hazkunde hori arriskuen gaineko kontrol zorrotz batekin kudeatzen ari da, berankortasun eta kobraezintasun portzentajeak oso txikiak baitira. Horrek esan nahi du, zorrotasun teknikoa dela arriskuaren kudeaketaren oinarria. Gauzak horrela, berankortasun eta kobraezintasun ratioak % 0,97 eta % 0,43koak dira, sektorearen batez besteko ratioen oso azpitik.

KONFEKOOPEK laguntza osoa eman dio OINARRIri, eta bere kaudimen-maila hobetu ahal izateko OINARRIren kapital-zabalkuntzan parte hartu du, 200.000€ko ekarpen gehigarriarekin.

Bestalde, KONFEKOOPEK OINARRIn abala eskatu duten Kooperatiba guztien Azterketa-komisioa osorik finantzatzen jarraitu du.

Halaber, 2010ean, presidentetza-kargua aldatu da, eta Euskal Kooperatiben Mugimenduko ordezkari batek hartu du bere gain.

ELKAR-LAN KOOP. E.

ELKAR-LAN, KOOP.E. Kooperatiba berriak sustatzeko esparruan Euskal Kooperatiben Mugimenduaren oinarritzko eragilea izan da beste behin ere.

Ekainaren 25eko Euskadiko Kooperatiba-sozietate Txikiaren 6/2008 Legeak Euskadin eratzen diren Kooperatiben kopuruan izan dituen ondorio onei esker, **2010ean Elkar-LAN, KOOP.E.k 80 Kooperatiba berri eratzeko prozesua bultzatu du**, horietako 75 Lan Elkartek. **Horrez gain, bere laguntzarekin eratu diren Kooperatibei tutoretza edo aholkularitza-zerbitzua eskaini die bere lehen urtean, eta eskaturiko alderdi guztien inguruko laguntza eman die.**

Zabalpenaren esparruan ELKAR-LAN, KOOP.E.k egindako lana ere berebizikoa izan da. Kooperatiba-ereduaren eta bere aplikazioen gaineko ezagutza ezak sortzen dituen gabeziei aurre egin die, sustatzaile edo preskribatzaileen behar eta nahiei erantzuteko. Izan ere, behar beharrezkoa da pertsona horiek kooperatiben konfigurazio juridikoaren ezaugarriak eta berezitasunak ezagutzea, eta euren enpresa-proiektuek konfigurazio horretan daukaten lekuaren gaineko informazioa izatea.

Enpresa-proiektu baten izaera juridikoa osagai subjektiboetan oinarrituta dago, baina baita aholkuak ematen dituen horren sinesgarritasun eta eraginean ere. Izan ere, frogatuta dago sustatzaileek Kooperatiben aldeko hautua egiten dutela euren aholkulari edo konfiantzazko pertsonak hori gomendatzen dienean. Horregatik da horren garrantzitsua ELKAR-LAN, KOOP.E.k Euskadiko Udaletan, INEMetan (langabeak izan baitaitezke ekintzaitzaren giltza), Garapen-agentzietan, Notariotzetan eta Aholkularitzetan garatu duen lana, hala erakunde horietara bisita eginda nola

jardunaldi tekniko eta kooperatiba-arloko prestakuntza eta informazio-bileretara deituta, Kooperatiben esparruan ezarriko diren araudi berriei edo emango diren diru-laguntzei buruzko informazioa emateko.

ELKAR-LAN, KOOP.E-ren lanak hainbat hartzaille izan ditu. Aipatu sozietate-preskribatzaile eta ekintzaile taldeez gain (Kooperatiba bat modu proaktiboan eratzeari ekin diotenak), beste zenbati talde ere sartu dira, hala nola familia-enpresen eraldaketekin zerikusia zeukatenak, irabazi asmorik gabeko erakundeak Kooperatiba bihurtu nahi zituztenak edo krisiaren ondorioz mahai gainean jarri diren enpresen berregituratzeekin loturikoak.

Bestalde, bere jarduerarekin modu eraginkorrean aurrera jarraitu ahal izateko, euren kooperatiba ELKAR-LAN, KOOP.E-ren laguntzarekin eratu duten sustatzaileen ezaugarriak, profilak, motibazioak eta zailtasunak identifikatzeko lan egiten jarraitu behar du. Horretarako, *Kooperatiben Enpresa-ekimenen Behatokiaren* 5. txostena prestatu du. Txosten horren ondorioak, Euskadiko Kooperatiben sustapena hobetuko duten neurriak hartzeko tresna bikaina izango dira.

ELKAR IKERTEGIA KOOP.E. (EUSKAL KOOPERATIBEN MUGIMENDUAREN ANALISI ETA AZTERKETA ZENTROA)

Ondokoak izan dira ELKAR IKERTEGIA, KOOP.E.k ekitaldi honetan landu dituen azterketa-esparruak:

1. Kooperatiben erregimen ekonomikoaren berrikuspena, Europako Kooperatiba Sozietatearen Estatutuaren ondorioz.
2. Lansari-aurrerakinen urte arteko bilakaeraren lege-erregulazioa.

Sozietatearen barne bizitzari dagokionez, lau entitate bazkideetako batek ELKAR IKERTEGIAREN bazkide izateari utzi dio. Hain zuzen ere, MONDRAGONEK utzi dio parte hartzeari. Hortaz, EKGK, KONFEKOOP eta ERKIDE dira proiektuaren barruan jarraitzen duten bazkideak.

1.4. GIZARTE EKONOMIAKO ERAKUNDEAK

EKGK – EUSKADIKO KOOPERATIBEN GOREN KONTSEILUA

2006 eta 2008 arteko EAEko Kooperatiben jardueraren hainbat alderdi aztertzen dituen txosten sozio-ekonomikoa prestatu du Kontseiluak. Txostena Kontseiluaren webgunearen bidez zabaldu da.

Halaber, kooperatiba-printzipio eta balioen inguruan Kontseiluan eman behar den hurrengo hausnarketako oinarriak idazteko lan-taldea eratu du.

Aholkulari Seniorrek euren lana egiten jarraitu dute. Ekitaldian zehar, 11 Kooperatibari laguntza eman diete. Urte amaieran, Irakaskuntzako Kooperatibetatik zetozen beste lau zuzendari ohi sartu dira Aholkulari Seniorren taldean.

Instrukzio fasean kooperatiba-ikuskaritza arautzeko Dekretuaren proiektu-zirriborro bat ere prestatu du Kontseiluak. Dekretu horren arabera, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailak Kontseiluaren esku utziko luke instrukzioa egiteko eskumena.

Halaber, hainbat arau-proiekturi buruzko nahitaezko 10 txosten prestatu ditu, eta eskatu zaizkion kooperatiben arloko gaietarako 3 txosten juridiko idatzi ditu. Abokatuak, bere aldetik, zuzeneko 304 kontsultari erantzuna eman die.

Bestalde, kooperatiba-sozietatearen azkentze-prozesuan egon zitezkeen 12 Kooperatibentzako informazio-espeditenteak bideratu ditu. Guztira 22 likidazio-espeditente tramitatu dira, eta Kooperatibak beste izaera juridiko eta sozietate-izaera bat daukaten enpresetan eraldatzeko beste 4 espeditente ere.

Kooperatibetan Gatazkak Konpontzeko Zerbitzuari dagokionez (BITARTU), 16 arbitraje-espeditente tramitatu ditu, 3 adiskidetze egin ditu eta 2 bitartekotza-prozesutan esku hartu du.

Kooperatiba-prestakuntzaren esparruan, irakaskuntza ez-unibertsitarioan kooperatiba-prestakuntza sustatzeko programa bat garatu du Kontseiluak. "Kooperatiba-ikaskuntza" metodologia erabili da programa horretan, eta ERKIDeko bazkide diren 10 hezkuntza-zentrok parte hartu dute.

GEEB - GIZARTE EKONOMIAREN EUSKAL BEHATOKIA

KONFEKOOPEK GIZARTE EKONOMIAKO BEHATOKIA sendotzeko laguntza osoa eman du. Behatokia Donostiako GEZKIren egoitzan dago, eta Euskal Herriko Gizarte Ekonomiaren jarduera guztia identifikatu eta kuantifikatzeko beharrei erantzuteko jaio da.

Bere lanak hiru esparrutan banatu dira:

- a) Esparru juridiko-politikoa.
- b) Esparru zientifiko-akademikoa.
- c) Esparru sozioekonomikoa.

Hiru esparru horietan, txostenak, artikulatuak, albisteak eta argitalpenak prestatu ditu, eta sare nazional eta nazioarteko bat osatzeko loturak ezarri ditu.

2010ean, halaber, euskal gizarte-ekonomiari buruzko Txostena idatzi eta Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako sailaren Gizarte Ekonomia, Lan Autonomo eta Gizarte Erantzukizun Korporatiboko zuzendaritzari igorri dio.

Gaur egungo Euskal Gizarte Ekonomiaren egoera ezagutzea da txostenaren xedea, bai eta ekonomia eta lan eta gizarte-arloko egoeraren analisia egitea ere. Eusko Legebiltzarrak Enplegu eta Gizarte Gaietako sailari Kooperatiben eta Gizarte Ekonomiako gainerako sektoreak aztertzeke galdegin dion transakzio-zuzenketaren ondorioz prestatu du txosten hori.

1.5. ORDEZKARITZA INSTITUZIONALAK

KONFEKOOPEK ordezkaritza lan zabala egin du hainbat erakunde instituzionaletan, Euskal Kooperatibismoaren interesak defendatzeko.

KONFEKOOP geroz eta instituzio gehiagotan presente dago. Jarraian, KONFEKOOPEK esparru horretan egin duen lana azalduko dugu.

EGK – EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE KONTSEILUA

EGK - Euskal Ekonomia eta Gizarte Kontseilua 1984an sortu zen Lege bidez, baina 1995era arte ez zen martxan jarri. Jaurlaritzaren eta Legebiltzarraren organo aholku-emailea da, eta interes ekonomiko eta sozial guztiek Euskadiko politika ekonomikoan parte hartu ahal izatea du helburu nagusi.

EGK-k berezko lege-nortasuna dauka, Autonomia Erkidegoko Administrazioarenetik bereiz, bere eginkizunak aurrera eramateko independentzia eta gaitasun osoarekin.

Finantza eta ekonomia-arloko autonomiaren printzipioak gidatuta, EGK-k bere aurrekontua onartu eta gauzatu du. Aurrekontua EAEko Aurrekontu Orokorretan esleitzen zaizkion zenbatekoekin finantzatu da.

Bere eginkizunak aurrera eramateko, barne eta harreman-lanak egiteaz gain, hainbat agiri ere prestatu ditu. Dokumentazio hori guztia EGK osatzen duen profesionalen taldeak prestatu du, bai eta bere Presidente eta Idazkariak ere. Halaber, bere Gizarte Organoen (Osoko bilkura eta Batzorde Iraunkorren) eta beren-beregi sorturiko Lan-batzordeen hainbat bilera egin dira. Ekitaldi honetan zehar, jarraian aipatzen diren jarduerak burutu dira:

- 16 Osoko bilkura
- Batzorde Iraunkorren 15 bilera.
- Gizarte-garapeneko batzordearen 11 bilera.
- Memoria sozioekonomikoaren 4 bilera.
- Ekonomia-garapeneko batzordearen 13 bilera.

- Hainbat bilera Akitaniako Ekonomiako eta Eskualdeko Kontseiluekin eta Nazioz gaindiko Atlantikoko Sarearekin.

Lan horren guztiaren ondorioz, 15 irizpen onartu ditu, 2009ko Memoria Sozioekonomikoa prestatu du eta 3 azterketa propio abian jarri ditu. Halaber, hainbat bilera egin ditu Akitaniako Ekonomiako eta Eskualdeko Kontseiluekin eta Nazioz gaindiko Atlantikoko Sarearekin.

Jarraian, EGK-k onartu dituen irizpenen zerrenda daukazue:

- **1/2010 Irizpena:** Funtzionario eta langileak Osakidetza - Euskal Osasun Zerbitzuko estatutu-langile bihurtzeko prozedura ezartzen duen Dekretu-proiektuari buruzkoa.
- **2/2010 Irizpena:** Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta arautzen duen Dekretu-proiektua.
- **3/2010 Irizpena:** Euskadiko Instituzioen arteko Komunikazioa eta Publizitatearen Lege-aurreproiektuari buruzkoa.
- **4/2010 Irizpena:** Familiaren euskal Behatokia sortu eta arautzeko Dekretu-proiektua.
- **5/2010 Irizpena:** Enpresek ingurumena babesteko egiten dituzten inbertsioetarako diru-laguntzak arautzen dituen Dekretu-proiektuari buruzkoa.
- **6/2010 Irizpena:** Bidaia-agentzien Antolamenduaren Dekretu-proiektuari buruzkoa.
- **7/2010 Irizpena:** Abenduaren 23ko 18/2008 Legea aldatzen duen Lege-aurreproiektua, Diru-sarreren Bermeari eta Gizarteratzeari buruzkoa.
- **8/2010 Irizpena:** Lehiakortasunaren Euskal Agintaritzaren Lege-aurreproiektuari buruzkoa.
- **9/2010 Irizpena:** Gizarte Larrialdietarako Laguntzak arautzen dituen Dekretu-proiektua.
- **10/2010 Irizpena:** Gizarteratze Aktiboko Hitzarmenen Dekretu-proiektuari buruzkoa.
- **11/2010 Irizpena:** Droga-mendekotasunen arloko aurrezaintza, laguntza eta gizarteratzeari buruzko Legearen hirugarren aldaketa egiteko Lege-proiektuari buruzkoa.

- **12/2010 Irizpena:** Klima-aldaketaren aurka Borrokatzeko Euskal Lege-aurreproiektuari buruzkoa.
- **13/2010 Irizpena:** Europar Parlamentu eta Kontseiluaren Barne Merkatuko zerbitzuei buruzko abenduaren 12ko 2006/123/CE Zuzentaraura hainbat legetara egokitzeko Aldaketen Lege-aurreproiektuari buruzkoa.
- **14/2010 Irizpena:** Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseilua arautzen duen Dekretu-proiektua.
- **15/2010 Irizpena:** Gizarte-zerbitzuen Euskal Behatokiaren Dekretu-proiektua.

EGKren tribuna:

Ekitaldi honetan zehar, ondoko hitzaldi hauek egin dira:

- Urtarrilak 21: “Krisi ekonomikoa. Berezitasuna eta garrantzia, ekonomia iraunkorraren legea da konponbidea?”
 - Hizlaria: Emilio Ontiveros. Ekonomia eta finantza-arloko analista eta Madrileko Unibertsitate Autonomoko Ekonomia Katedraduna. Ekonomia Zientzietan doktorea UCMn.
- Apirilak 21: “Euskal Ekonomia: Analisiak eta Aukerak”
 - Hizlaria: Carlos Aguirre. Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun sailburua.
- Urriak 13: “Erregioko berrikuntza eta Prestakuntza beharrak EAEn.”
 - Hizlaria: Philip Cooke. Erregioetako berrikuntza sistemen aita gisa ezaguna den irakaslea.

Halaber, ekitaldi honetan EGKa berritu da. Ondoko hauek dira berrikuntza horren unerik esanguratsuenak:

- 2010eko otsailaren 17an, Kontseilua berritu aurreko saioa egin zen, eta a), b) eta c) taldeko kontseilari berriek postuaz jabetu ziren. Halaber, d) Adituen taldeko kideen izendapenak bozkatu eta onartu ziren. Kide horien izendapena Lehendakariaren 1/2010 Dekretu bidez egin zen.
- Berritzea osatze aldera, 2010eko apirilaren 14an, Kontseilu berriaren lehen Osoko bilkura egin zen. Bertan, hurrengo lau urteetan Juan Mari Otaegi Murua presidente izateko erabakia eta Osoko Bilkuraren erabakiaren bidez Francisco

José Huidobro Burgos Idazkari Nagusi izateko egindako izendapena onartu ziren.

- Presidentearen izendapena Lehendakariak formalizatu zuen apirilaren 26ko 7/2010 Dekretuaren bidez, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2010eko maiatzaren 13an.

GZEK – GIZARTE ZERBITZUETAKO EUSKAL KONTSEILUA

GZEK-k garatutako jardueran, ondoko puntuak nabarmendu daitezke:

1. Gizarte eta osasun-arloko Arretarako Euskal Kontseiluaren Dekretu arautzailea

Jorratu beharreko beharrizanen egoeraren izaera geroz eta konplexuago, mistoago eta pluralagoa aintzat hartuta, Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legeak politika publikoen aldeko apustua egiten du, **sistema desberdinen arteko lankidetzaren eta koordinazio espazioak** sortzearen eta bateratze guneeetan dauden beharrizanen egoerei erantzuteko.

EAEn, osasun eta gizarte-arloko espazio hori eraikitzeko, gai horretan eskumenak dituzten instituzio guztien arteko koordinazio eredu baten aldeko hautua egin da, kasuan kasuko politiken harmonizazioan oinarrituta.

Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseilua bi sistemen arteko (gizarte eta osasun zerbitzuak) "Koordinazio-kontseilu" gisa eratu da. Ez da parte-hartzerako kontseilua, gai honetan bi sistemetak bakoitzak bere parte-hartze mekanismoak ezarrita baititu. Ildo horretatik, kontseiluan gizarte-zerbitzuen eta osasunaren esparruan eskumenak dituzten instituzioek soilik parte hartuko dute, eta ez da beste edozein erakunderen parte-hartzerik aurreikusten. Hala ere, esparru horretan garrantzitsuak edo adituak diren pertsonen ahotsarekin baino botorik gabe parte hartzea aurreikusten da, betiere Kontseiluak gonbidatuta, eta jorratuko diren gai zehatzetan ekarpenak egin baditzakete.

Dekretuaren zirriborroaren arabera, Gizarte-zerbitzuen instituzioen arteko Organotik abiatuta erabakiko da Gizarte-zerbitzuen esparruko ordezkariak. Organo horretan Aldundiek, Udalek eta Eusko Jaurlaritzak parte hartzen dute, eta Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluko gizarte-zerbitzuen sistemako ordezkariak zehaztuko ditu.

2. Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen egoerari buruzko VI. eta VIII. txostenak

Txosten horiek 2007 eta 2008koak dira, eta aurreko urteetan Eguia-Careaga Fundazioak (SIIS) prestatu zituen. Egitura orain arte erabilitako bera da, funtsean Eustatek emandako datuetan oinarrituta. Egitura aldatzeko proposamenen bat lantzen ari da.

3. Gizarte Zerbitzuen mapa prestatzeko zonifikazio proposamena

Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiekin eta Udalekin koordinatuz, lau urtero EAEko GZPE prestatuko du, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren helburuak betetzeko beharrezkoak diren prestazioak, zerbitzuak, programak eta bestelako jarduerak planifikatzeko helburuarekin. Plan horrek EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapa jasoko du. Mapa horrekin Lurralde Autonomiko osoan eman beharreko antolamendu berriaren oinarriak zehaztuko dira.” Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legearen 34. artikulua.

Gizarte Zerbitzuen Mapa garatzeko orduan, zerbitzuen zonifikazioa hainbat alderdi zehazteko osagai funtsezkoa da, hala nola zerbitzu motak, zerbitzuaren intentsitatea, etab. Bost zonifikazio maila proposatu dira:

- i. Zerbitzu zentralizatuak, EAEn mailari dagozkionak
- ii. Hurbiltasun baxuko zerbitzuak, Lurralde Historikoen mailari dagozkionak
- iii. Hurbiltasun ertaineko zerbitzuak, Gizarte Zerbitzuen eskualdearen mailari dagozkionak.
- iv. Hurbiltasun handiko zerbitzuak, Gizarte Zerbitzuen zonaldearen mailari dagozkionak.
- v. Hurbiltasun handieneko zerbitzuak, Gizarte Zerbitzuen Oinarrizko Gunearen mailari dagozkionak.

Hurbiltasun ertaineko zerbitzuei dagokienez, zera nabarmendu behar da, Gizarte Zerbitzuetako Eskualdeek Osasun Eskualdeak hartzen dituztela erreferentziatzat, horretarako ezarrita dauden 7 zonaldeen bidez. Eta hurbiltasun handiko zerbitzuei dagokienez, aldiz, ezartzen den Zonaldea 20.000 eta 40.000 biztanleen artekoa izango litzateke, 30.000 biztanleko batez bestekoarekin. Biztanle kopuru horretara iristen ez diren udalerrien kasuan, hainbat udalerritako herritarrak kontatu edo

batzeko neurriak hartu beharko lituzkete. Halaber, biztanle kopuru hori gaintitu daitekeen udalerrietan zonifikazio neurriak hartu beharko lirатеke, proposatzen diren 30.000-40.000 biztanle horietara egokitzeko. Azkenik, hurbiltasun handieneko zerbitzuak egongo lirатеke, gizarte-zerbitzuen oinarrizko gunearekin bat datozenak. Esparru horretan hiri-guneen (5.000tik 15.000 biztanlera) eta landa-guneen arteko (3.000tik 7.000 biztanlera) bereizketa egiten da.

Horri guztiari, gune bereziak ere gehitzen zaizkio, gizarte-zerbitzuen oinarrizko guneei soilik eragingo lieketenak, eta proposamen honetan jaso ez diren eta zehaztu beharko lirатеkeen zenbait adierazleren arabera osatuko lirатеkeenak (bere garaian ezartzen den adierazleren baten arabera, esate baterako hiriburu izatea edo langabe gehien dituen edo adineko pertsona gehien dituen...), azken finean, gune hori gune berezi izendatzeko ezaugarriren bat daukatena (horrek oinarrizko guneetarako aurreikusita dauden biztanle kopuruen neurri horiek –hiri-gune edo landa-eremuetakoak- aldatu beharra ekarriko luke).

Gai hau kontuan hartu beharreko funtsezko osagaia da ondoren Gizarte Zerbitzuen Mapa garatzeko, eta aldi berean, Gizarte Zerbitzuen Zorroarekin harreman zuzena dauka. Plana-Mapa-Zorroa Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari zuzenean eragiten duten hiru osagaiak dira.

4. Euskal Informazio Sistema

2010ean zehar, Informazio Sistema bat eratzeari dagokionez, instituzio eta erakundeetan erabiltzen ari diren informazio eta kudeaketa-sistema desberdinak aztertu, ebaluatu eta ezagutzeko lanak egin dira. Horretarako, zenbait entitateren, batez ere Aldundi eta Udalen, sistemak aukeratu eta aztertu ziren.

Gaur egun hainbat erakunde eta eragileren gizarte-zerbitzuen sistemari sakabanatuta dagoen informazio guztia biltzeko tresna izan behar duela da honen guztiaren abiapuntua. Baina eragile bakoitzak bere informazio eta kudeaketa-sistema mantentzeko beharrari eutsiko zaio. Horretarako, “elkar eragingarritasunerako plataforma” bat sortzea proposatzen da. Horrela, eragile bakoitzak bere informazio-sistemaren bidez, informazio-sistema berrira beharrezko ikusten duen informazioa bideratu ahal izango luke.

Sistemak baina, badu beste ezaugarri bat: “elkar eragingarritasunerako plataforma” horretara informazioa bideratzeaz gain, eragile bakoitzak informazio

hori eskuratzeko aukera izango du. Hau da, joan-etorriko sistema bat da, eta beraz, ez da Eusko Jaurlaritzaren informazio-sistema bat, baizik eta Gizarte Zerbitzuen Sistema osoarena. Hortaz, sisteman sartzen diren datuen gaineko unean uneko isilpekotasun mailak ezarrita, eragile guztiek euren plangintza prestatu edo euren zerbitzuak kudeatzeko beharrezkoak diren datuak eskuratu ahal izango dituzte.

Proiektuaren tamaina ikusita, bederatzi azpi-proiektutan banatu da, gaur egun dauden informazio-zerbitzuen sakabanaketa handia dela eta. Eta aurretik gaiari heltzeko beste saiakera batzuk egon direla (eta beti “talka” egon dela) abiapuntutzat eta ikasgaitzat hartuta, bakoitzak daukana errespetatuko duen informazio-sistema bat sortzea da helburua; sistema horrek elkar eragingarritasunerako plataforma bat eratuko du eta ondoren, eragile bakoitzak informazioa eman eta nola edo hala jaso ahal izango du. Bederatzi azpi-proiektuak pixkanaka jarriko dira une honetatik aurrera abian, kasuan kasuko lizitazioen bidez, eta gutxi gorabehera datorren urte eta erdian zehar garatuko dira.

5. Familia-bitartekotzaren otsailaren 8ko 1/2008 Legearen aldaketa.

Familia Bitartekotzaren legeari Omnibus Legea ezartzea.

Gizarte Zerbitzuen legearen arabera, dagoeneko Espainian edo Europako Erkidegoan lanean ari diren erakundeek ez dute erregistratu beharrik, Erkidegoan bertan kokatuta dauden zerbitzu-zentroekin zerikusia daukaten erakundeek izan ezik. Hau da, beste Estatu edo Autonomia Erkidego batzuetan daukaten baimenari onespena ematen zaio, zerbitzuak liberalizatzeko Zerbitzuen Zuzentarauak esaten duenari jarraiki. Azken batean, translazio bat da.

Familia Bitartekotzaren legeari ere eragiten dio horrek, familia bitartekotzaren jarduera jarduera profesionala dela ulertzen baitu, eta zuzentarauak egiten duena familia bitartekotzaren jarduera profesionala liberalizatzea da. Horren ondorioz, familia bitartekotzaren jarduera profesionala garatzeko derrigortasuna aldatu behar da. Hori da, hain zuzen ere orain kendu dena, eta beraz, ez da beharrezkoa izango Bitartekarien Erregistroan izena ematea, eskumendun Gobernu edo Administrazio publikoek zehazten dituzten zerbitzu publikoetarako izan ezik. Hortaz, jarduera profesionala garatzeko erregistroan izena ematea nahitaezko baldintza ez denez, erregistroan izena eman gabe familia bitartekotzaren jarduera profesionala garatzea arau-hausteen katalogotik kenduko da.

6. Gizarte Zerbitzuen Institutuzioen arteko Organoa

Institutuzioen arteko organo berri honek (12 pertsonak osatzen dute: Udalek, Foru Aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak) bere lehen bilera edo eratze-bilera egin zuen 2010eko ekainaren 17an. Nola edo hala, organo berri honek gizarte-zerbitzuen euskal sisteman zegoen hutsunea beteko du, orain arte Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua bakarrik baitzegoen bertan.

7. Tele-laguntzako Zerbitzu Publikoaren dekretua (2010eko azaroko zirriborroa)

Norberaren Autonomia sustatzeko eta Mendetasun egoeran dauden pertsonen arretarako abenduaren 14ko 39/2006 legearen 15. artikulua norberaren autonomia sustatzeko eta mendeko pertsonen arretarako zerbitzuen katalogoa zehazten du. Bertan, besteak beste, tele-laguntza zerbitzua agertzen da. Bestalde, 22. artikulua tele-laguntza zerbitzuaren azalpena ematen du. Bertan esaten da zerbitzu independentea edo etxez etxeko laguntzaren osagarri izan daitekeela, eta etxean arreta-zerbitzurik jasotzen ez duten pertsonen emango zaiela, euren Arretarako Programa Indibidualak hala zehazten badu.

Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 legearen (2008ko abenduaren 24ko EHAA) II. Tituluko I. Ataleko 22. artikuluan Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoa zehazten da. Katalogoaren azalpen eta ezaugarriak legearen 21. artikuluan jasota daude.

Katalogo horretan bertan ondoko sailkapena jasotzen da: lehen mailako arretarako gizarte-zerbitzuak, bigarren mailako arretarako gizarte-zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak. Lehen mailako arretarako gizarte-zerbitzuen barruan, besteak beste, Tele-laguntza zerbitzua jasota dago, 1.6 epigrafean hain zuzen ere.

Testuinguru horretan, tele-laguntza oinarrizko zerbitzua dela eta etengabe garatzen ari dela esaten da. Etengabeko garapen hori zerbitzuaren helburua betetzeko xedez egiten da, ondoko helburu hau hain zuzen ere: erabiltzailea etxean mantentzea, Informazio eta Komunikazio Teknologietan (IKT) oinarrituriko sistemen bidez eta bizitza independentea garatzeko irtenbideak bilatuz, norberaren zaintza eta autonomiarekin loturiko alderdiak sustatuz.

Ondoko hau da tele-laguntzaren inguruan ematen den azalpena: laguntza eta esku-hartze sozialerako zerbitzu teknikoa da, lehen mailako arretarako gizarte-zerbitzuen testuinguruan kokatuta dagoena. Erabiltzaileei etengabeko arreta-zerbitzua eskura izateko aukera ematen die -telefono bidez eta komunikazio eta informatika tresna espezifikoekin-, eguneko hogeita lau orduetan eta urteko egun guztietan. Larrialdi edo behar sozialei aurre egiteko berariaz prestatuta dauden pertsonak eskaintzen dute zerbitzua, hala eurek zuzenean nola komunitateko beste baliabide batzuen mobilizazioaren bidez.

8. Gizarte-zerbitzuen Euskal Behatokiaren Dekretua

Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 legearen 77. artikuluari jarraiki, Gizarte-zerbitzuen Euskal Behatokia gizarte-zerbitzuen esparruan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako sailaren mende dagoen zerbitzua da, eta Dekretu horren bidez sortu da, legeak ezarritako eginkizunak betetzeko.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Behatokia, erabakiak hartzeko tresna nagusia den heinean, gizarte-zerbitzuen kalitatea bermatu eta hobetzeko beharrezkoak diren neurriak sustatzea du xede.

Ondoko hauek izango dira Gizarte Zerbitzuen Euskal Behatokiaren ardatz tematikoak:

- Gizarte-beharrak eta zerbitzu eta prestazio ekonomikoen eskaria.
- Zerbitzu eta prestazio ekonomikoaren mugak eta ezaugarriak.
- Arretaren kalitatea, batez ere jarduera profesionalaren alor etiko eta bioetikoarekin loturiko alderdiak.
- Gizarte-zerbitzuen inguruko politika publikoak.

ISEK - INDUSTRIA SEGURTASUNERAKO EUSKAL KONTSEILUA

2010ean, azkenik, ISEKa martxan jarri da. Hain zuzen ere, azaroaren 13an egin zuen lehen bilera, Industriaren Lege berria azaldu eta horren inguruan hitz egiteko helburuarekin.

Omnibus Legea izenekoa eta traba administratiboak mugatuta jarduera ekonomikoak errazteko beharrak dira Lege berri horren jatorriak. Industria Legeak esparru autonomikora ekarri du lege honen edukia, eta proiektu eta instalazioen zuzendaritzarako oniritzi-agirien beharra desagerrarazi du.

Administrazioa beharrezkoa den segurtasuna bermatzen saiatuko da. Horretarako, beharrezkoak diren borondatezko aitorpenak eskatuko ditu, eta Erantzukizun Zibileko aseguruaren beharra biziki zainduko du.

ISEKa prozesua arintzeko beharrezkin bat dator, baina ez dago argi guztia eskatuzetik ezer ez eskatzera igarotzea bide egokiena denik. Industria saila prozedura berriaren bilakaera bertatik bertara zainduko du. Prozedura berri hau profesionalen erantzukizunean oinarrituta dago, Administrazioaren kontrolean baino gehiago.

GEK – GIZARTERATZEKO EUSKAL KONTSEILUA

2010ean Eusko Jaurlaritzak enplegu eta gizarteratze aktiboan garatu duen jarduera sailaren eskumen berriek baldintzatu dute, bai eta horren ondorioz Diru-sarreraren Berme eta Gizarteratze Legea egokitzeko zegoen beharrak ere.

2010ean GEKen bilera gutxi egin badira ere, Hirugarren Sektoreko sareen solaskidetzak eta ekarpen maila, kooperatibismo sozialarena barne, nabarmentzekoa izan da.

Ekitaldian zehar jorratu diren eta azkenean eztabaidatu eta nahitaezko txostena jaso duten gaiak Diru-sarreraren Berme eta Gizarteratze Legearen arauen garapenaren esparrukoak izan dira. Hain zuzen ere, GLL - Gizarte Larrialdietarako Laguntzen Dekretu-proiektuaren eta Gizarteratze Aktiboko Hitzarmenen Dekretuaren garapenari eta onespenerari buruzkoak izan dira.

GLLei dagokienez, Dekretuaren onespenerarekin Diru-sarreraren Bermea eta Gizarteratze Legearen 18/2008 Legearen lege-garapena amaitutzat eman da, prestazio ekonomikoen arloan. Aurreko Dekretua ordezkatzeko du, eta urteko aginduak jaulkitzeko aukera ematen du, malgutasun handiagoz urte bakoitzeko beharrezko hobeto egokitzeko eta EAE osoan irizpide homogeneoak zehazteko.

Gizarteratze Aktiboko Hitzarmenen Dekretu-proiektuari dagokionez, aldiz, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailak Diru-sarreraren Bermerako Errenta Errenta Aktibo bihurtzea izan du helburu, legearen beraren izpirituarekin bat etortzeko. Behar duten familiei

prestazioak eskuratzeko eskubide bikoitza eta gizarteratzea eta laneratzea bermatzea da legearen helburua.

Horretarako, prestazio bat jasotzearen truke, Gizarteratze Aktiboko Hitzarmen bat sinatu beharko dute prestazioa jasoko duen pertsonak eta Administrazioak. Horren ondorioz, prestazioa jasotzen duenak lanean hasteko prest egon behar du.

Urteko gizarteratze eta aktibazio politika aktiboekin lotuta, ISEKek Instituzioen arteko Gizarteratzeko II. Planaren emaitzen ebaluazioan parte hartu du. Ebaluazio hori 2010-2015erako Gizarteratze Aktiboko Plan berriaren oinarria izango da, eta denbora luzez langabezia egoeran dauden pertsonen aktibazioa lortzea izango du ardatz.

FAMILIAREN BATZORDE IRAUNKORRA

2010eko ekitaldian zehar, Batzordeak lau bilera egin ditu, eta ondoko hau izan da bere jarduera:

- Lana eta familia bateratzeko Dekretuaren testuari buruzko Batzordearen aldeko irizpena. Ildo guztietan aurrekontuaren kudeaketa eta betearazpena hobetzea du helburu Dekretuak.

Dekretu berri horri esker, zenbatekoak handitzeaz gain, eskabideen aurkezpena eta tramitazioa hobetzen dira, eskabideak aurrez aurre aurkezteaz gain, bide telematikoak erabiltzeko aukera ematen baita.

- Familia eta lana bateratzeko Dekretuan aurreikusitako laguntzak onartzen dituen Aginduaren aldeko irizpena.
- Familien Euskal Kontseiluaren Dekretuaren testuari buruzko kontrako irizpena. Dekretu horretan kontseiluaren gaur egungo eta etorkizuneko osaera zehazten da. Kontrako iritzia agertzen duen txostena KONFEKOOPEko ordezkariaren boto negatiboaren ondorioz eman zen, erakunde horri ez baitzaio ordezkartzarik aitortzen Kontseiluaren osoko bilkuran.
- Familiaren Behatokia sortu eta arautzeko dekretuaren testuari Batzordeak emandako aldeko irizpena.

Familien Behatoki horri dagokionez, Zerbitzu eta Erregimen Juridikoko zuzendaritzaren eta Funtzio Publikoaren zuzendaritzaren txostenen zain gaude.

- 2010ean zehar, 2009ko ekitaldiari dagokion Familiaren 2006-2010 epealdiko II. Planaren ebaluazioa egin zen.

- Familien III. Plana zehazteko ekintzak abian jarri dira, EAEko familien egoeraren diagnostiko baten bidez. Horretarako, orain arte garatu gabe zeuden biztanleen, okupazioaren, EAEko pobreziaren inkestaren, 2008ko etxebizitzaren inkestaren eta haur-pobreziaren datuak gurutzatu dira. Familien III. Plan hori 2009-2013 legegintzaldiko Jaurkitzaren 22 Planen artean sartu da.
- Haur eta Nerabeen Arloko ildo estrategikoak.
- Familien III. Planaren prestaketa eta Gizarte-eragileek egindako ekarpenak.

OSALAN – LANeko SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO EUSKAL ERAKUNDEA

Otsailaren 17 eta 18an, OSALANek "Eraikuntzako Lan-arriskuen Prebentziorako Biltzarra" antolatu zuen. Donostiako Kursaal biltzar-jauregian egin zen, Patxi Lopez lehendakariaren eta prebentzio-arloko aditu ugariaren parte-hartzearekin. Biltzarrean ondoko alderdi garrantzitsu hauek jorratu ziren: eraikuntzako lan-istripuen ondorioz ematen den heriotza-tasa, azpikontraten erregistroa, sustatzaileen erantzukizun penalak eta kontraten eta jabekideen elkargoen arteko harremanak.

Eraikuntzaren sektorean lan egiten duten zenbait kooperatibek arazoak izan dituzte, euren bezeroek Txartel Profesionala eskatzen baitiete. Txartel hori Metalaren hitzarmenean jasota dago, hortaz, Kooperatibetako bazkide langileei ez lieke eragin behar. Nolanahi ere, 2009ko azaroaren 6ko Metalaren sektoreko Batzorde Paritarioaren akordioaren arabera, Txartel Profesionala ez zen 2011ko abenduaren 31ra arte indarrean sartuko. Akordio hori CONFEMETAL eta CCOO eta UGT sindikatuek sinatu zuten. Hala ere, Auzitegi Gorenak zenbait sindikatuk aurkeztu duten helegitea onartu du, eta hemendik aurrera ez da derrigorrezkoa txartel hori edukitzea.

Bestalde, 2010ean OSALANek oraindik ez du enpresa-medikuen gabeziaren arazoa konpondu.

ELA eta LAB sindikatuek OSALANeko organoetan parte-hartzeari utzi diote.

Bestalde, enpresako prebentzioarekin eta segurtasunarekin zerikusia duten gai asko "euskal gizarte-elkarrizketaren" barruan onartu dira. Hortaz, bertan parte-hartzerik ez daukagun sektoreek arlo horietako erabaki-esparrutik kanpo geratu gara"

Azaroaren 30ean, "Prebentzio-zerbitzuen Araudiaren erreforma berriari buruzko hausnarketak" izeneko Jardunaldi teknikoa egin zen Bilbon.

Abenduaren 1ean egin zen OSALANEN Kontseilu Nagusiaren bileran, "2011-2014 Euskal Autonomia Erkidegoko Laneko Segurtasun eta Osasunaren Estrategia" agiria eztabaidatu zen. KONFEKOOPek hainbat ekarpen egin zituen. Hainbat azalpen-fitxetako jarduera-ildoetan KONFEKOOP ekintzen garapenean inplikaturako eragile bezala sartzearen ingurukoak onartu ziren.

EUSTAT - EUSKAL ESTADISTIKA ERAKUNDEA

2010ean jorrotutako alderdi garrantzitsuenen artean, ondoko hauek nabarmendu daitezke:

- Bizi-baldintzen inkesta (bost urtean behin egiten da, eta 2010ean egin da).
- Berrikuntza Teknologikoaren inkesta.
- Osasunaren egoera. Osasun-sektore osoaren bilduma da.
- Gizarte-babesaren kontuak.

Gizarte Ekonomiari dagokionez, maiatzean 2006-2008 Gizarte Ekonomiaren Estatistika argitaratu zen. Hala ere, agiri hori Enplegu eta Gizarte Gaietako sailaren bidez egiten dute.

KONTSUMOBIDE – KONTSUMOKO EUSKAL INSTITUTUA

2007ko uztailaren 20an, KONTSUMOBIDE - Kontsumoko Euskal Institutua eratzeko uztailaren 29ko 20/2007 Legea argitaratu zen EHAAn.

Hiru urte beranduago, 2010ean, oraindik ez dio bere jarduerari ekin, eta Zuzendaritza Kontseiluaren bilera bakar bat ere ez da egin. KONFEKOOP Zuzendaritza Kontseilu horretan dago.

Nolanahi ere, KONFEKOOP Eusko Jaurlaritzako Kontsumo zuzendaritzako arduradunekin harremanetan jarri da, eta KONTSUMOBIDE 2011n abian jarriko dela jakinarazi digute.

LANBIDE - EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUA

2010eko abenduaren 22an, LANBIDE - Euskal Enplegu Zerbitzuaren Estatutuak onartzeko 329/2010 Dekretua argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian; besteak beste, Lanbideren Administrazio Kontseiluaren osaera jasotzen da bertan: 15 kidek osatuko dute; horietako 5 Administrazio Publikoko ordezkariak izango dira, beste 5 sindikatu garrantzitsuenetakoak eta azken 5ak Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa-elkarteetakoak.

Kalitatezko enplegu egonkorreko eskubidea osorik garatzeko LANBIDERi funtsezko papera ematen zaio. Horrez gain, Euskal Kooperatiben Mugimenduarentzat oso garrantzitsuak diren helburuak jasota daude bere eginkizunen artean, hala nola: lan eta lanerako prestakuntza-programen kudeaketa, etengabeko prestakuntza, lan-bitartekotzaren kudeaketa, ekintzailtzaren sustapena izaera juridiko denak aintzat hartuta... Hori guztia kontuan hartuta, KONFEKOOPEK Lanbideren Administrazio Kontseiluan parte hartzeko daukan nahi legitimoa behin eta berriro helarazi dio Eusko Jaurlaritzari, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailaren bidez. Parte-hartze hori Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa-elkarte nagusietako 5 ordezkarien taldean eman beharko litzateke.

Astebete beranduago, abenduaren 31n, LANBIDERen jardueraren hasiera arautzen duen Dekretu berri bat argitaratu zen EHAAAn. Bertan, CONFEBASKEK enpresa-elkarteei dagozkien 5 kontseilariak izendatuko zituela esaten zen. Hau da, CONFEBASKi aitortzen dio Euskadiko enpresa-elkarteek Lanbideren Administrazio Kontseiluan izango dituzten ordezkari guztiak izendatzeko eskumena.

Eusko Jaurlaritzaren erabaki hori ez dator bat euskal ekonomia-sarean dagoen gizarte eta enpresa-arloko errealitatearekin, eta geroz eta sendoagoa den Euskal Kooperatiben Mugimenduari emandako kolpe instituzional latza da. Izan ere, azken hamarkadetan, Kooperatiben mugimenduak, beste zenbait enpresa-eragilek ez bezala, agerian utzi baitu kalitatezko enplegu egonkorrekin daukan konpromisoa, baita egoera ekonomiko okerrenetan ere.

Hori dela eta, KONFEKOOPEK LANBIDERen araudiaren kontrako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztea erabaki du.

2010ean, KONFEKOOPEK hainbat lan egin ditu alderdi politikoekin, Eusko Legebiltzarrean, Eusko Jaurlaritzan eta hedabideetan, Euskal Kooperatibismoarentzat berebiziko garrantzia daukan gaia baita hori. 2011n ere lan horri jarraipena emango zaio.

ENK - EUSKADIKO NAZIOARTEKOTZE KONTSEILUA

Ekainaren 28an, "Euskadiko Nazioartekotze Kontseilua sortzeko ekainaren 8ko 156/2010 Dekretua" argitaratu zen EHAAn. Besteak beste, ondoko hauek dira bere eginkizunak: nazioartekotzea sustatzeko lanetan ari diren Administrazio eta Organismoen topaleku izatea, euren jarduerak koordinatzea, lankidetzarako jarraibideak ezartzea eta Ekonomia Sustapenerako Planetan nazioartekotzea sustatzeari dagozkion alderdiak martxan jartzea.

ENK-k bi organo nagusi ditu: osoko bilkura eta batzorde eragilea. Bertan, Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak, Merkataritza-ganberak, CONFEBASK eta sindikatuak daude, bai eta Bilbao Exhibition Centreko ordezkari bat ere.

KONFEKOOPEK hainbat kudeaketa-lan egin ditu Eusko Jaurlaritzako nazioartekotze gaietako arduradunekin, 156/2010 Dekretuan ez baita Euskal Kooperatiben Mugimenduaren ordezkari hitz egiten.

Kudeaketa-lan horien emaitzak 2011ko lehen hiruhilekoan ikustea espero dugu, KONFEKOOPEK ordezkari bat lortu ahal izateko hala Osoko bilkuran nola Batzorde Eragilean.

EUSKADIKO IMMIGRANTEEN INTEGRAZIO ETA PARTAIDETZARAKO FOROA

Aurreko urtea bilera bakar bat ere egin gabe igaro ondoren, 2010ean, Foroa abenduan besterik ez da bildu, eta informazioa emateko soilik.

1.6. KOMUNIKAZIOA

KONFEKOOPEK komunikazioaren esparruan politika proaktiboa garatu du, norberaren irudi ona ala txarra, hein batean, hedabideetan egiten den zabalpen lanaren mende dagoela uste baitu.

Ondoko hauek izan dira KONFEKOOPEK komunikazioaren esparruan egindako lanen ardatz nagusiak:

WEBGUNEA: WWW.KONFEKOOP.COOP

Oso denbora gutxian, Internet komunikatzeko tresna garrantzitsuenetako bat bihurtu da, hala enpresentzat nola bere erakunde adierazgarrientzat.

Hala ere, sarean murgiltzen den orok ez ditu bere helburuak betetzen. Gaur egungo munduan, internetik gabe ezer ez zarela ematen du eta horrez gain, interneten itxura ona ematen ez baduzu, gure mezuen hartzaile diren erabiltzaileak edo bezeroak antzeko edukiak dituen beste webgune batera joango dira. Azken batean, klik bateko tartea baino ez dago.

Webgunea egunean mantendu dugu eta eduki berriak sartzen joan gara. 2010ean, 26.210 bisitari izan ditu: 72.089 izan dira bisitak eta 180.228 ikusitako orriak.

Webgunean ondoko edukiak sartu direla nabarmendu behar da: Euskal Kooperatiben Mugimendua aurkezteko bideoa, "TALAIAN ENPRESAGINTZA" eta "EUSKADI KOOP" saio guztiak, eta Etxebizitza Kooperatiben inguruko atal berezia, asko izan baitira Kooperatiba mota horri buruz jasotako kontsultak. Horretarako, EKGKren eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza sailaren artean prestatu ziren materialak erabili dira.

Halaber, "Lan arriskuen prebentzioa", "Genero berdintasuna" eta "Kooperatiba bat nola eratu" gaien buruzko eskuliburuak eta Gizarte Ekonomian EGEa ezartzeko tresna eskuragarri daude webgunean.

Bestalde, intraneta oso tresna erabilgarria eta egokia izaten ari da kontseilariei Artezkari-tza Kontseiluen inguruko dokumentazio guztia eta bestelako informazio

interesgarria helarazteko. Horrez gain, beste intranet bat erabilgarri dago ELKAR IKERTEGIAKO kontseilariarentzat, nahieran erabili dezaten.

FOROKOOP (KOOPERATIBA-EZTABAIDARAKO FOROA)

2010an FOROKOOPEN jarduera bi funtzionamendu-eredutan oinarrituta egon da:

- a) Etengabeko eztabaidarako foro birtuala. Horretarako teknologia berriak erabili ditu, denboran zehar iraungo duen lan-tresna izateko.
- b) FOROKOOPEN IV. Biltzarra izan den aurrez aurreko eztabaida foroa. Bertan, gizarte-berrikuntzaren gaia izan da eztabaidagai.

“Enpresako gizarte-berrikuntzari” buruzko IV. Biltzarra urriaren 7an egin zen Garaia Berrikuntza Gunean, eta enpresa eta unibertsitateen munduko aditu garrantzitsu ugariaren hitzaldiak entzuteko parada egon zen, besteak beste ondoko hauenak: Javier Elzo, Ander Gurrutxaga, Mariano Ferrer, Txomin Garcia, Koldo Saratxaga, Andoni Gartzia, Iraitz Agirre, Jonan Fernández, Mikel Gantxegi, Jose Mari Larrañaga, Joan Subirats, Juan María Otaegi eta Pablo Angulo.

Horrekin batera, IV. Biltzarrak izan zuen parte-hartzaile kopurua ere nabarmentzekoa da: 177 pertsona.

URTEKO PRENTSAURREKOA

Kooperatiben Nazioarteko Egunaren kariatara, prentsaurrekoa deitu zen, euskal kooperatibismoaren datu eta zifra nagusien berri emateko (langileak, fakturazioa, kooperatiba kopurua, etab.), eta bide batez, Kooperatibei eragiten dieten gaurkotasuneko gaiak jorratu ziren.

Hedabide ugari bertaratu ziren prentsaurreko horretara.

“TALAIAN ENPRESAGINTZA” SAIOA HERRI IRRATIA – LOYOLA MEDIAN

TALAIAN astelehenetik ostiralera ordubetez, 18:00etatik 19:00etara, Herri Irratia - Loyola Median eman den irratsaioa izan da.

Ostegunetako saioaren azpititulua Enpresagintzan zen, eta enpresaren inguruko gaiak jorratzen ziren. Hamabost minutuz, Kooperatibei buruz hitz egiten zen, eta KONFEKOOPEK tarte hori edukiz hornitzeko ardura zeukan. Hainbat gai izan dira jorratutakoak: enpresa-elkarte gisa ditugun aldarrikapenak, nazioartekotze eta berrikuntzari buruzko gaiak, Kooperatiba berrien eraketa, etab.

Saio horiek guztiak KONFEKOOPEN webgunean jarri dira, irratsaioa zuzenean jarraitu ezin izan dutenek entzun ahal izateko.

Talaian saioa 2010eko bigarren hiruhilekoan amaitu zen, Onda Vascak Herri Irratia – Loyola Media erosi eta saioa etetea erabaki baitzuen.

“KOOPERATIBA-ENPRESA” SAIOA ONDA VASCA - HERRI IRRATIAN

Herri Irratia – Loyola Mediako saioa amaitu zenean, KONFEKOOP Onda Vasca – Herri Irratiko arduradunekin harremanetan jarri zen, kooperatibismoari buruzko asteroko saio bat diseinatzeko aukerak aztertzeko.

Kudeaketa-lan horiek emaitza onak ekarri zituzten, eta 2010eko urritik, ostegun arratsaldero, “Kooperatiba-enpresa” saioa eskaintzen du irrati horrek. Hamabost minutuko saioa da, eta euskal kooperatiben inguruko gaurkotasun handiko gaiak eta euskal kooperatibismoaren elkar-lankidetzak tresnak aztertzen dira.

KOMUNIKAZIO PLANA

Ekitaldi honetan zehar, bereizitako bi atal izan dituen komunikazio-plana garatu da:

Lehenengo partean, iragarkiak edo kartelak jarri dira EAEko hedabideetan, INEMetan eta Hezkuntza-zentroetan. Kartel horietan ondoko testua agertzen zen: "JO KOLPEA KRISIARI, ELKARTU KOOPERATIBAN: arduratsua, lehiakorra, berdinzalea, solidarioa, laguntzailea... hori da kooperatiba-enpresa. Etorkizun

handiko irtenbidea talde-lanean”, eta testuarekin batera hainbat irudi agertzen ziren mezua indartzeko.

Bigarren atalari dagokionez, euskal hedabide nagusietako net euskarrietan ondoko mezua sartu zen: “TALDE LANEAN ARITZEAK ETORKIZUNA DAUKA: Elkartu Kooperatiban”. Kanpaina horrek 13.120 klik jaso ditu.

ARTIKULUAK ETA ELKARRIZKETAK HEDABIDEETAN

Aurreko atalean aipaturiko Prentsaurrekoaz gain, KONFEKOOPEKO arduradunek hainbat elkarrizketa egin eta hainbat iritzi-artikulu idatzi dituzte hedabideetan.

Esparru horretan hedabideetako profesionalei laguntza osoa eman diegu, eta harreman iraunkorrak edukitzen saiatu gara.

1.7. KOOPERATIBAK SUSTATZEKO PROGRAMAK

2010ean, ondoko programa hauek garatu dira:

EGE – ENPRESEN GIZARTE ERANTZUKIZUNA

KONFEKOOPEK Enpresen Gizarte Erantzukizunaren alorrean egiten duen lana handitu eta handitu ari da. Ekitaldi honetan zehar, esparru horretan jorratu den lanak ondoko ezaugarriak izan ditu:

1. Martxoan, “Gizarte Ekonomiako enpresetako Tutoreak RSE.COOP programan trebatzeko” urteroko ikastaroa antolatu genuen. Teknikari eta aholkularientzako programa da, kooperatibetan RSE.COOP metodologia ezartzen laguntzeko beharrezkoak dituzten ezagutzak lortu ditzaten.

2. EGE - CEPES

KONFEKOOPEK parte-hartze aktiboa izan du CEPESeko EGE batzordean. CERSEn (EGEaren Estatuko Kontseiluan) ordezkari-tza-lanak egiteko beharrezkoa den gai honen inguruko informazioa osatu eta bateratzea da batzorde horren helburu nagusia. CEPESek, noski, batzorde horretan ordezkari-tza dauka.

Bestalde, martxoaren 25 eta 26an EGEaren Europako Biltzarra egin zen Palman, Espainiaren esku zegoen Europako Presidentetzaren barruan. Bertan izan zen KONFEKOOPEN ordezkari-tza.

3. FOARSE – EGEAREN ARABA FOROA

KONFEKOOPEK FOARSEren jarduera guztietan eta Zuzendaritza Batzordean parte hartu du, Idazkaritza bere gain hartuta.

Maiatzaren 18an, FOARSEren IV. Biltzarra egin zen Gasteizko Europa Jauregian.

2010ean, KONFEKOOPEK EGEaren inguruko 19 aurre-diagnostiko egin zituen Kooperatibetan. Hartara, Araban aurre-diagnostikoa egin duten kooperatibak 54 dira guztira.

4. GEK/RSC GIPUZKOA FOROA

Estatutuak landu eta Foroaren lan-estrategia zehazteko hainbat Batzorde ezarri dira. Halaber, Foroa Elkarte gisa eratu da.

Horrez gain, 2011-2015 Plan Estrategikoa prestatu du Foroak.

KONFEKOOPEK, bestalde, Foroko hainbat kidek antolatu zuten “Erosketa Arduratsuen Tailerrea” parte hartu zuen.

5. INNOBASQUEKO EGEAREN I-TALDEA

2009ko irailean sortu zen INNOBASQUEKO EGE i-Taldea Euskadiko 30 eragiletik gora osatzen dute, eta denek ala denek EGE prozesuekin harreman aktiboa daukate. Euskadin EGEaren “artearen egoera” zein den jakiteko agiri bat prestatu du Taldeak.

Horrez gain, i-Taldeak bi proiektu garatzeko erabakia hartu du:

1. EGEaren ukiezinari balioa ematea.
2. EGEa ezartzeko esparru metodologikoa sortzea

EUSKARA

Ondoko hauek izan dira Kooperatibetan euskararen erabilera normalizatzeko KONFEKOOPEK egin dituen lanak:

1. Eusko Jaurlaritzako Kultura sailarekin sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren jarraipena egitea (Lan-Hitz programa).
2. KONFEKOOP “BAI EUSKARARI Ziurtagiriaren Elkartearen” Zuzendaritzako kidea da, bazkide diren erakunde erabiltzaileen izenean. Beraz, 2010ean elkarte horren jarduera aurrera eramaten lagundu du. Besteak beste, ondoko hauek dira jarduera horren helburu nagusiak:
 - BAI EUSKARARI Ziurtagiriaren salmenta handitzea
 - Euskal Herrian erreferente izatea.
 - Pertsonen gogobetetze maila areagotzea.

Lehenengo helburuan, ziurtagiriaren hazkundera kultur parke, parke teknologiko, industrialde eta gisa horretako taldeetara begira egin behar dela esaten da.

Horretarako, ziurtagiria daukaten enpresa eta erakundeen artean banatzen den aldizkari bat jarri du martxan.

Horrez gain, Elkartea Iparraldean erregistratu da. Dagoeneko bulegoak zituen bertan.

Bestalde, irailaren 22an KONFEKOOPEK Arabako Foru Aldundiaren Lazarraga saria jaso zuen, "barne-harremanetan euskararen erabilera egokia egiteagatik".

KONFEKOOPEK Bikain 2009 Hizkuntza Kudeaketaren Kalitatearen Ziurtagirien banaketan ere parte hartu zuen, bai eta ekitaldi hori sustatzeko prestatu zen bideoan ere.

KONFEKOOPEK esparru horretan zein Lan-Hitzen egin duen lan guztiak bi ekimenen bateragarritasuna izan du ardatz, bien arteko lehian sartu beharrean.

3. Euskal Kooperatibei jakinarazi zaie Euskadiko Kooperatiba Elkarte Txikien 6/2008 Legearen aldaketen ondorioz, Kooperatiben Sustapen eta Hezkuntzarako eta beste gizarte-xedetarako Ekarpeneren (lehengo FEPCren) xedeen artean, berri bat jaso dela: euskararen erabileraren sustapena.
4. Berria egunkariarekin lankidetzeta-hitzarmena mantendu da. Hitzarmen horri esker, Berriako harpidedun egin nahi duten KONFEKOOPEKO eta Federazio sektorialetako langileek % 50eko deskontua daukate. Deskontua erdibana ordainduko dute KONFEKOOPEK eta Euskal Editorea taldeak.

INNOBASQUE

KONFEKOOP enpleguaren i-Taldeko buru izaten jarraitu du. Talde hori "Bizitza osoan zeharreko prestakuntza" lantzen ari da. Alor horretan INNOBASQUE Eusko Jaurlaritzako Irakaskuntza eta Enplegu eta Gizarte Gaietako sailarekin erabateko lankidetzan ari da. Halaber, hainbat lan-taldetan parte hartzen jarraitu du. Funtsean, enpleguaren esparruan ari diren gizarte-eragile guztiekin bildu den "balioen" taldean aritu da.

Eta duela gutxi Hezkuntzaren i-Taldean sartu gara. Bertan, Erkide-Irakaskuntzako ordezkari batek Irakaskuntzako Kooperatibismoaren sentsibiltate eta lehenasunen berri eman du. Goian azaldutakoaz gain, EGEaren i-Taldean ere parte hartu dugu.

KNE – KOOPERATIBEN NAZIOARTEKO EGUNA

1895ean Londresen sortu zen Nazioarteko Kooperatiba Aliantzaren Batzorde Eragileak Kooperatiben Nazioarteko Eguna ospatzeko gomendioa eman zuen 1923an. Eta 1992an, Nazio Batuen Batzarrak, instituzio horrek esandakoari jarraiki, 1995etik aurrera Kooperatiben Nazioarteko Eguna ospatzeko beharra aldarrikatu zuen, NAKen fundazioaren urteurrena gogoratzeko.

Horrek agerian uzten du, Kooperatibak nazioetako ekonomiaren eta gizartearen garapenerako faktore ezinbestekotzat jotzen direla.

2010eko ekainaren 17an, KONFEKOOPEK 88. KNE ospatu zuen, “Elkar-lankidetzaren” ideia ardatz hartuta. Egun horretan “Elkar-lankidetzaren enpresa-estrategia gisa” eta “Elkar-lankidetzaren sozietate-nortasun gisa” gaiak jorratu ziren Agustin Markaidek (Eroski Taldeko presidentea) eta Carmen Comosek (CEPESeko zuzendariak) eskainitako bi hitzaldietan.

KGOK - KOOPERATIBEN GOBERNU ONAREN KODEA

Gaur eguneko krisi ekonomikoak, hein handi batean finantza-entitate handienetako arduradunen diru-gose gehiegizkoak eragindakoa, arazo etiko baten aurrean gaudela erakutsi digu. Eraginkortasun ekonomikoaren eta akziodunarentzako balioa sortzeko aitzakian, jarduera horien arduradunen interes pertsonala, ekonomikoa eta ezagutza lortzearen nahia bultzatu dira.

Berebiziko garrantzia daukan gaia da hau, asko baitago jokoan, mota horretako zalapartek bizi dugun sistema ekonomiko eta sozialaren ospea kaltetzen baitute.

Hortaz, ezinbestekoa da etika profesionalean sakontzea; eta esparru horretan garrantzia berezia daukate Gobernu Korporatibo Onaren Kodea bezalako osagaiek. Gisa horretako kodeek gizarteetako bizitza arautzen duten lege eta araudien multzoa

osatu behar dute, eta inolaz ere ez horiek ordezkatu. Ildo horretatik esan beharra dago, kode hauek ez direla derrigorrez bete beharreko arauak. Enpresen etikari buruzko eskuliburu gisa ulertu behar dira, gardentasuna, zintzotasuna eta bikaintasuna beste ezeren gainerik egongo diren kudeaketa eredu bati egokitutako jarduerak proposatuko dituztenak. Azken finean, etika eta gobernu ona jarrera kontuak dira, eta ez arauekin loturiko osagaiak.

Enpresa-korporazio handi asko eta askotan Gobernu Onaren Kodea ezartzeko arrazoi izan diren gehiegikeriak eta egoerak ez dira Euskal Kooperatiben Mugimenduan eman. Hala ere, Kooperatiben egitekoari lagunduko dion tresna positiboa dela uste dugu.

Horregatik guztiarengatik, KONFEKOOPEK, ERKIDEREkin lankidetzan, KGOK idatzi du eta federatutako kooperatiben artean banatuko du.

Kodea prestatzeko lanean, kooperatiben ereduari egokitzeko ahalegin handia egin behar izan da, kooperatibismoaren arauak eta printzipioak ez baitatoz gainerakoekin bat, eta akziodunarentzako balioa handitzea ez baita konpondu beharreko arazoaren muina, beste sozietateetan gertatzen den bezala.

MUNDUKIDE FUNDAZIOA

KONFEKOOPEK MUNDUKIDE FUNDAZIOAREN Patronatuan sartzeko lanari ekin dio, baina sarrera ez da oraindik gauzatu.

Herrialde txirotuekiko lan-munduaren elkartasuna sustatzea da MUNDUKIDEREN xedea. Horretarako, kooperatiben elkartasuna, baliabideak eta “egiten jakitea” jarriko ditu herri horien garapenaren mesedetan, euren protagonismoan oinarrituta eta euren irakaspenetara zabalik.

Xede hori betetzeko, ondoko lan-esparruak jorratzen ditu:

- a) Elkar-lankidetzaren Herri Ekonomietako Kooperatibekin:
 - Kooperatiba-enpresen garapena.
 - Garapen osorako tokiko programak.
- b) Prestakuntza eta Aholkularitza:

- Komunitateko esperientziak elkartrukatzeko programa.
- Prestakuntza eta Aholkularitza programak.

“HAZILUR, ENPRESEN SUSTAPENERAKO SOZIETATEA SA-REKIN” EMAN DAITEKEEN LANKIDETZAREN ANALISIA

2009ko Kudeaketa Planean, nekazaritza eta nekazaritzako elikagaien esparruko enpresak sustatzeko HAZILURen eraketaren berri jaso genuen. Arrisku-kapital formularen bidez eratu zen sozietate hori.

Ondoko hauek osatzen dute HAZILUR: Kalitatea fundazioa, IKT SA, Ipar Kutxa Koop. E. eta Euskadiko Nekazaritza-elikagaien Kooperatiben Federazioak. ENKFK eskatuta, 2009an KONFEKOOP HAZILURekin lankidetzan aritzeko aukera mahai gainean jarri zen. Lankidetzaren hori aztertzeke lanak 2010era arte atzeratu ziren, ENKFren iritzi komenigarria baitzen denbora tarte bat uztea sozietateak bere jarduera garatu, eta lankidetzaren modu egokiagoan zehaztu ahal izateke.

Hori dela eta, 2010ean gai hori berriro jarri da mahai gainean, lankidetzaren eskema egokiena zein izan daitekeen aztertzeke. Hala ere, erabakirik ez da hartu, eta proposamena 2011ko ekitaldian jorratuko da.

ORDEZKARITZA INSTITUZIONALEKO JARDUERAK

KONFEKOOPEN arduradunek instituzioen eta enpresen ekitaldi ugarian parte hartu dute, Euskal Kooperatibismoa instituzioen aurrean ordezkatzeko lanean. Besteak beste, ondoko ekitaldi hauek nabarmenduko ditugu:

- Urtarrilak 13: Giza Eskubideen Sari-banaketa Lehendakaritzan.
- Urtarrilak 20: italiar Kooperatiben ordezkartzeko buruekin, Massimo della Cassa eta Giorgio Rognoni-rekin, egindako bilera.
- Otsailak 17: OSALANek antolatutako Prebentzioaren eta Lan-arriskuen inguruko jardunaldia.
- Otsailak 18: CEPESek antolatutako Gizarte Ekonomiaren ikusgarritasuna bultzatzeko ekitaldia, Jose Luis Rodriguez Zapatero Gobernuako Presidentearekin.

- Otsailak 25: Laneratze enpresa eta Arrantzaleen Kofradiaren ekitaldi batean parte hartzea
- Martxoak 3: Jose Maria Arizmendiarrietaren Lagunen Elkartearekin egindako bilera.
- Martxoak 4: Gasteizko gizarte-etxe baten inaugurazioa.
- Martxoak 5: Mundukide Fundazioaren X. urteurrena.
- Martxoak 5: Gipuzkoako Merkataritza Ganbarak antolatutako enpresentzako saria.
- Martxoak 6: Lehendakaritzaren “Gernikako Arbolaren gurutzea” goraipamena.
- Martxoak 9: Enpresen Dibertsifikaziorako Plana, Arabako Foru Aldundiak antolatua
- Martxoak 11: COCETAREN Batzarra.
- Apirilak 23: Eusko Jaurlaritzaren XXX urteurrena.
- Apirilak 24: Kontseiluaren ekitaldia.
- Maiatzak 3: Dionisio Aranzadiri egindako omenaldia Deustuko Unibertsitatean.
- Maiatzak 5: Innobasqueren Batzarra.
- Maiatzak 6: CEPESen batzarra Toledon.
- Maiatzak 7: Gizarte Ekonomiaren Europako Biltzarra.
- Maiatzak 12: ERKDIERen Batzarra.
- Maiatzak 14: ELKAR-LAN Koop.E.ren Batzarra
- Maiatzak 18: FOARSEren IV. Biltzarra.
- Maiatzak 18: Araba Euskaraz aurkezpena.
- Maiatzak 19: Enplegu eta Gizarte Gaietako sailak antolatutako Berdintasun Jardunaldia.
- Maiatzak 21: OINARRI EBBren Batzarra.
- Maiatzak 26: HETELen Lanbide Heziketarekiko konpromisoaren saria.
- Maiatzak 30: Ibilaldia
- Maiatzak 31: AEBren batzarra Bruselan.
- Ekainak 1: Ramon Rubial saria Mundukide Fundazioari.
- Ekainak 10: FUNKOren Batzarra.
- Ekainak 11: URRATS Euskaltegiaren egoitza berriaren inaugurazioa Donostian.
- Ekainak 15: EKGK-ko kontseilari ohien bilera.
- Ekainak 16: Etxebizitzaren Gizarte Hitzarmena Lehendakaritzan.
- Ekainak 20: Araba Euskaraz
- Ekainak 25: “Galdera bat Europarentzat” programa Eusko Legebiltzarrean.
- Uztailak 12: Inaxio Irizarren liburu aurkezpena Garaia Gunean.
- Irailak 6: Ikasturtearen hasiera-ekitaldia Mondragon Unibertsitatean (MU).
- Irailak 15: Bilera Catalina Chamorro Eusko Jaurlaritzako Nazioartekotze zuzendariarekin.

- Irailak 16: Lidergoa Euskadin, Deustuko Unibertsitatean.
- Irailak 17: Izaskun Bilbao Europarlamentarioari egindako bisita.
- Irailak 18: Candido Hernandez Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Berrikuntzako zuzendariarekin egindako bilera.
- Irailak 19: Baketiken ikasturtearen hasiera-ekitaldia.
- Irailak 22: Eusko Abertzaleak, Euskal Sozialistak eta Euskal Talde Popularra Legebiltzarreko taldeekin egindako bilera.
- Irailak 24: Aralar, Eusko Alkartasuna, Ezker Batuak eta UPyD Legebiltzarreko taldeekin egindako bilera.
- Irailak 25: Euskal Herriko Ikastolak-en ikasturtearen hasiera-ekitaldia.
- Irailak 28: Gorte Nagusietako Eusko Abertzaleak Parlamentuko taldearekin egindako bilera.
- Irailak 29: Eusko Jaurlaritzako Gemma Zabaleta Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuarekin egindako bilera.
- Urriak 3: "Kilometroak" jaiaren hasiera Pasaian.
- Urriak 5: EFQM Bikaintasunerako Europako Fundazioaren Prize saria.
- Urriak 7: FOROKOOPen IV. Biltzarra.
- Urriak 15: Eztabaida Eusko Legebiltzarrean.
- Urriak 27: San Prudencio Fundazioaren lan eta gizarte-foroa.
- Urriak 27 eta 28: Gizarte Ekonomiaren Europako Biltzarra Bruselan.
- Urriak 28: Euskaltel Prest-10 ekitaldia.
- Azaroak 2: Miguel Laspiur Confebaskeko presidentearekin egindako bilera.
- Azaroak 2: Euskaliteko ebaluatzaileen kluba.
- Azaroak 4: BIKAIN bideoaren grabazioa.
- Azaroak 5: Euskal Herriko Ikastoletako zuzendariarekin egindako bilera.
- Azaroak 11: Euskadiko Kutxa eta Baskoniaren "taldeen lidergoan" hitzaldia.
- Azaroak 12: "Erosketa arduratsua" hitzaldia.
- Azaroak 17: Arabako merkatarienezako sariak.
- Azaroak 18: Basque 2.m Fundazioaren aurkezpena.
- Azaroak 18: ETEOren (orain "MU Enpresagintzan") L. urteurrena.
- Azaroak 23: J.R. Bengoa saria, Eusko Ikaskuntzan.
- Azaroak 24: Innobasqueren "Kooperatibismoa eta Hezkuntza" topaketak.
- Azaroak 25: Txemi Cantera saria.
- Azaroak 26: SAIOLANen XXV. urteurrena.
- Abenduak 2: Innobasqueren "Hiri Hezitzailea" proiektuaren aurkezpena.
- Abenduak 2: Lehendakariaren hitzaldia Deusto Foroan.
- Abenduak 2: Uxoa Fundazioarekin egindako topaketak.

- Abenduak 15: TESS proiektuaren bisita Baionara.

1.8. HITZARMENAK ETA LANKIDETZAK

ALECOP KOOP.E.

2009an, ALECOP KOOP.E.k eta KONFEKOOPEK lankidetza-hitzarmena sinatu zuten, Kooperatiben artean, ALECOPEko eskolako bazkide-laguntzaileen ikasketak eta lan-praktikak txandakatzeko ereduia sustatu eta zabaltzeko.

Lan-praktikak ikasturtean zehar egiten dira, ikasketekin batera, egunero lau orduz, hau da, ohiko lanaldiaren % 50.

ALECOPEko eskolako bazkide laguntzaileek ez dute inolako lan-harremanik kooperatibekin. Hortaz, praktikek dirauten bitartean, bi aldeek ezin dute inolako lan-kontraturik formalizatu.

ALECOPEko eskolako bazkide laguntzaileek jasotzen duten prestakuntza teorikoa indartu eta osatzea da hitzarmen honen helburu nagusia. Horretarako, kooperatibetan lanerako gaitasun profesionalak lantzen dituzte.

2010ean, hitzarmenaren berri ematen duen triptikoa prestatu eta banatu zaie Kooperatibei.

EUSKALTEL

KONFEKOOPEK EUSKALTELEkin sinatuta daukan hitzarmenari esker, federatutako kooperatibek deskontu garrantzitsuak eskuratu ditzakete telefono finko eta interneten zerbitzuan.

2010ean KONFEKOOPEN dauden kooperatiben federazio sektorialetako batean alta eman duten kooperatibak hitzarmenean parte hartzen duten kooperatiben zerrendaren barruan sartu dira.

GARLAN KOOP.E.

2007an KONFEKOOPEK lankidetz-hitzarmena sinatu zuen GARLAN KOOP.E.rekin. Hitzarmen horren ondorioz, GARLAN KOOP.E.ko bazkideek Kooperatibaren Kreditu atalari egiten dizkioten mailegu-eskaeren Aztertze-komisioa Konfederazioak finantzatzen du.

2010ean, Kreditu atal horrek ez du inolako mailegu-eragiketarik egin bere bazkideekin.

2. JARDUERAK ESTATUAN

2.1. CEPES - GIZARTE EKONOMIAKO ESPAINIAKO ENPRESA-KONFEDERAZIOA

Jarraian, 2010ean CEPESek garatu dituen jarduerak zehaztuko ditugu, 2009an Zuzendaritza Batzordeak onartu zuen CEPESen 2009-2012 Plan Estrategikoak zehazturiko jardueren eskemari jarraiki:

Ondoko hauek dira hiru ardatz estrategikoak:

- A) **ELKARRIZKETA SOZIALA:** CEPES solaskide sozial bihurtzea da helburua, Politika Publikoak eraikitzen diren espazio publikoetan ahotsa izan dezan, eta hala dagokionean, baita botoa ere.
- B) **KANPO IKUSGARRITASUNA:** Espainiako eta nazioarteko gizarteak Gizarte Ekonomiaren berezko ezaugarri eta balioak aintzat hartzeko lan egitea da helburua.
- C) **BARNE KOHESIOA:** Bazkideek CEPESekin eta CEPESek bazkideekin daukan harremana koherentea izatea eta Gizarte Ekonomiaren interesak defendatzeko eragile guztien batasuna lortzea da helburua.

Ondoko hauek dira 2010ean hiru ardatzetako bakoitzean garatu diren ekintza nagusiak:

A) ELKARRIZKETA SOZIALA

A.1. Gizarte Ekonomiaren interesekoak diren gaietan proposatzeko eta erantzuteko gaitasuna sortzea.

- 21 artikulua idatzi ditu hainbat argitalpen eta aldizkaritarako.
- Estatuko eta nazioarteko 32 ekitaldi publikotan parte hartu du.
- 26 prentsa-ohar helarazi dizkie hedabideei eta CEPESeko bazkideei.
- Gizarte Ekonomia hainbat esparrutan indartu eta kokatzen duten 18 agiri prestatu ditu.

- Legegintza-arloko bi azterketa egin ditu: a) Kooperatiben Legean, erregimen ekonomikoaren atalean, egin beharreko legegintza-arloko erreformei buruzkoa; eta b) Kooperatiba-sozietateen zerga-arloari buruzkoa, Europako Batzordeak zehaztutako irizpideak aintzat hartuta.
- Gizarte Ekonomiaren ukiezinei buruzko azterketa bat prestatzen ari da.
- EB 2020 Estrategiaren prestaketa bertatik bertara jarraitu du, eta Europako Batzordeak argitaratu eta aurkeztu dituen agirien gaineko proposamenak egin ditu.
- Azaroan, Mediterraneoaren Batasunerako II. Goi-bileran parte hartu zuen
- Garapenerako Lankidetzaren Kontseiluaren barruan, CEPESek “Garapenerako Politiken eta Ekonomia eta Finantza-krisiaren aurkako Neurrien koherentzia” txostena prestatzeko lanen buru izan zen.
- Gizarte Ekonomia Sustatzeko Kontseiluan ondoko lanak egin ditu:
 - a) Gizarte Ekonomiaren Lege-aurreproiektuaren zirriborroa.
 - b) Europako Kooperatiba-sozietatearen Lege-aurreproiektua.
 - c) Enpleguko politika aktiboen programak abiarazteko Errege-dekretuaren zirriborroa.
- Estatuko Enpresen Gizarte Erantzukizuneko Kontseiluaren bederatzi bileretan parte hartu du.
- ETE-en Behatokian lan egin du. Bertan, “Enpresa-hazkundera” izeneko lan-talde berria sortu da.
- Gizarte eta Ekonomia Kontseiluan, CEPESen ordezkariak 9 Batzorde Iraunkorretan eta 10 Osoko bilkuratan parte hartu dute. Saio horietan hainbat irizpen landu dira.
- Otsailaren 19an, CEPESen Zuzendaritza Batzordea Gobernuako Presidentearekin, Lan Ministroarekin eta Osasun Ministroarekin elkartu zen.
- Halaber, hainbat bilera egin ditu ondoko hauekin: ICACeko zuzendariordearekin, Kongresuko Ekonomia Batzordeko presidentearrekin, Garapenerako Lankidetzako Estatu-idazkariarekin, Uruguayko Lan Ministroarekin, ETE-en Zuzendaritza Nagusiko zuzendariarekin, Poloniako Ekonomia Ministro-ordearekin, eta beste hainbat bilera Hiru aldeko Fundazioaren zuzendaritzarekin eta Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritza Nagusiarekin.

A.2. Legedian eragitea, Gizarte Ekonomiaren interesak jaso ditzan.

- Estatuko eta nazioarteko hainbat instituziotako 30 ekimen jaso dira CEPESen, eta horietako 29ren inguruko iritzia eman du CEPESek.
- ICACen lan-taldean parte hartu du, Kontabilitate Plan Orokor berrian jasotako irizpideetara egokitu eta Kooperatiben kontabilitate-arloko arau berriak idazteko.
- Gizarte Ekonomiaren Lege-proiektuan lan egin du. Horretarako, hainbat barnebilera eta kudeaketa-lan egin ditu, Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioarekin eta Kongresu eta Senatuko taldeekin.
- Ekonomia Iraunkorraren Legaren gaineko hainbat iradokizun eta ohar jasotzen dituen agiria prestatu du.
- Europako Erkidegoen Auzitegian hainbat helegite jarri ditu, Espainiako Nekazaritza Kooperatiben fiskalitatea Estatuko laguntza-sistema batekin parekatzen duen Erabakia onetsi duelako Europako Batzordea.

A.3. Alderdi politikoekin eta Gorte Nagusietan lan-ildoak indartzea.

- Hainbat bilera egin ditu PSOE eta PPko arduradunekin, bai eta Gorte Nagusietako CIU, PNV, IU eta Talde Mistoko talde politikoekin ere.
- Hainbat bilera egin ditu Diputatuen Kongresuan Gizarte Ekonomiaren Azpi-batzordea berrindartzeko.
- Lau bilera egin ditu Europako Parlamentuko Gizarte Ekonomiaren Taldearekin.

A.4. CEPESen interesak partekatzen dituzten erakundeekin aliantzak egitea instituzioen aurreko presentzia indartzeko.

- CEPES eta Garapenerako Banku Interamerikarraren artean sinaturiko Elkar-ulertze Memorandumaren barruan aurkeztu diren proiektuen jarraipena egin du.
- CIRIECen Zuzendaritza Kontseiluan lan aktiboa egin du, bai eta Euromed Topagune Zibilean (ECEM) eta Hirugarren Sektoreko eta Gizarte Ekonomiako Gizarte Eragileen Foroan ere.
- EGEaren esparruan, CEPESek Global Reporting Initiativeen (GRI) eta Nazio Batuen Munduko Itunean sartzeko eskaera egin du.
- UGTekin sinaturiko lankidetzeta-hitzarmenaren barruan, Enplegurako Lanbide Heziketaren azpi-sistema ezagutzera emateko Jardunaldia antolatu zuen martxoan.

- CCOOrekin hainbat bilera egin ditu lankidetzaz-ildoak adosten saiatzeko.
- Lusi Vives Fundazioarekin “Hirugarren Sektorearen garapen-ereduak Europan” gaiari buruzko azterketa prestatu du.

B) KANPO IKUSGARRITASUNA

B.1. Gizarte Ekonomia ezagutzera ematea, batez ere Espainian eta EBn.

- 2009-2010 Gizarte Ekonomiaren Txostena prestatu du.
- Gizarte Ekonomiaren Koaderno hiru ale prestatu eta banatu ditu.
- CEPESen webgunean 189.414 bisita izan ditu.
- Buletin Digitalaren 39 ale banatu zaizkie 539 harpideri. Ale bakoitzean batez beste 9 albiste jaso dira.
- 2009-2010eko Gizarte Ekonomiako Enpresen Rankinga prestatu du. Rankingean sektoreko 900etik gora enpresaren lan eta ekonomia-ekintzak jasotzen dira.
- Estatuko eta nazioarteko 109 ekitaldi publikotan parte hartu du.
- Lanaren ezagutza eta zabalpenerako kanpaina garatu zuen, CEPES – ONCE Fundazioaren lankidetzaz-proiektuaren barruan.
- Urriaren 28an, CEPESeko Kontseilarietzako Goi Mailako Jardunaldiak egin ziren.

B.2. Hedabideetan presente egotea.

- 274 aldiz agertu da hedabideetan.

B.3. Gizarte Ekonomiaren bestelakotasunari buruzko informazioa sortzea.

- Mendekotasun egoeran dauden pertsonen arretarako sektorean Gizarte Ekonomiako enpresek daukaten posizionamenduari buruzko agiria prestatu du.
- Gizarte-ekonomiako enpresetan enplegua sortzeko sektore gorakorrei buruzko artikulua prestatu du.

B.4. Mundu akademikoan presente egotea.

- EOI Negozio-eskolarekin sinaturiko lankidetzaz-hitzarmenaren barruan, Gizarte Ekonomiako enpresak finkatzeko Ikastaroa egin zen, eta EOIk FEDER fondoekin ETE-ei eskaintzen dizkien europar proiektuen zabalpena egin zen.

- Espainiar ekonomiaren ekoizpen-mapari buruzko 20+20 Argitalpen-proiektua martxan jarri zuen.
- CIRIECen jarduera guztietan zuzeneko laguntza eman du.
- Carlos III. Unibertsitatearen Fundazioko Patronatuan parte hartu du.

C) BARNE KOHESIOA

C.1. Lankidetzaren instituzionala sortzea bazkideen eta CEPESen artean eta alderantziz.

- Estatistika-informazioa bilduko duen zerbitzu bat sortzeko aukerak aztertzen ari da.
- EBren 6 dokumentazio-zerrenda eta Europako EGKaren Osoko Bilkuren 9 Memorandum bidali ditu.
- Liburutegi birtualean 3011 argitalpen daude.
- Etengabeko Prestakuntzarako Programan 21 trebakuntza-ekintza gauzatu eta 293 ikasle prestatu ditu.
- CEPESeko bazkideek antolatu dituzten 26 ekitalditan parte hartu du.

C.2. Lan guztiak CEPESentzat eta bere bazkideentzat erabilgarrienak eta eraginkorrenak diren lan-esparruetan antolatzea.

- Maila Teknikoko Nazioarteko Harremanen Batzordeak (RELINTECek) EB 2020 Estrategiari buruzko kontsultan CEPESek emandako erantzuna prestatzen lagundu du.
- Lan eta Prestakuntza batzordeak CEPESi laguntza eman dio prestakuntza eta lan-arloko gaietan.
- Mendekotasun Batzordeak Gizarte Ekonomiaren sektore horretan daukan posizionamenduaren inguruko agiria prestatu du.
- EGE Batzordeak hiru bilera egin ditu Gizarte Ekonomiako enpresetan RSE.COOP metodologia ezagutzera eman eta ezartzeko.
- Halaber, lan garrantzitsua egin du ondoko esparru eta taldeetan: Emakumearen arloan; Komunikazio Batzordean; Kooperatiben Zerga-arloko Taldean; Finantzaketa Batzordean; Kooperatiben Kontabilitateko Taldean eta Aurrekontuaren Kudeaketarako Batzordean.

3. JARDUERAK NAZIOARTEAN

Nazioarteko esparruan, KONFEKOOPEK hiru alor hauetan lan egin du:

1. NAK - Nazioarteko Kooperatiba Aliantza.
2. Europako erakundeetako ordezkariak CEPESen izenean.
3. TESS Proiektua - Gizarte Ekonomia eta Ekonomia Solidarioaren Mugaz gaindiko sarea.

3.1. NAK – NAZIOARTEKO KOOPERATIBA ALIANTZA

NBEk "Kooperatiben Nazioarteko Urtea" izendatu du 2012a. Hori dela eta, NAKeko zuzendariak Nazioarteko Kooperatiben Mugimenduari gutun bat helarazi dio. Bertan NBEk zehaztutako leloa aurreratu dio: "Cooperative enterprises Build a Better world" – "Las Cooperativas constituyen un mundo mejor". NBEk logo ofiziala helarazten digunean paperetan, webguneetan, argitalpenetan eta abarretan erabiltzeko erregutzen dizuegu.

Aipatu Nazioarteko urtearen kariatara, KONFEKOOPEK Batzorde antolatzaile bat eratuko du 2011ren hasieran, eragileek garatu asmo dituzten jarduera guztiak koordinatzeko.

3.2. EUROPAKO ERAKUNDEETAKO ORDEZKARITZA CEPESEN IZENEAN

KONFEKOOPEK CEPESen daukan ordezkaria, azken erakunde horren ordezkaria da EUCCn eta SEEn.

EUCC - COOPERATIVES EUROPE

Cooperatives Europeren barruan, EBren Jarraipen Batzordeko kide gara. Batzordeak hiru bilera egin ditu, eta kooperatiben fiskalitateari eta Estatuko laguntzei buruzko gaiak jorratu ditu. Halaber, Espainiako nekazaritzako elikagaien Kooperatiben kasuaren jarraipena egin du.

Era berean, Europar Batzordeak 2004ko Kooperatibei buruzko bere Komunikazioaz egiten ari den ebaluazioaren gaia jorratu da, eta Kooperatibak sustatzeari buruzko Komunikazio berri baterako EUCCren proposamen bat prestatzea aztertu da.

Ondoko gai hauek guztiak ere eztabaidatu dira: ETE-en kontabilitatean IFRSaren ezarpena, Small Business Act, EGEa eta GEKari buruzko Stakeholder Europar foroa (Cooperatives Europeren ikuspegiari Gizarte Ekonomiaren esperientziaren ekarpena egin diogu), energia-arloko europar politikak, garapenerako lankidetzeta eta EUCCren kontabilitateari buruzko lan-taldearen berrindartzea.

Horrez gain, Estatuko laguntzen inguruko lan-taldean, kooperatiben fiskalitatearen berezitasunak defendatzeko eta Europako Lehiakortasunaren Zuzenbidean Kooperatiba-enpresen aitortza egokia egiteko posizionamendu-agiri bat landu da EUCCn.

Barne-merkatuko Barnier Komisarioarekin hainbat bilera egin dira, eta Europako Kooperatiba Sozietateari buruzko ekitaldiak antolatu dira.

SEEk kideen artean egindako eztabaiden zati handi batek barne-mailako gaiak izan dituzte ardatz, hala nola SEeko presidentearen agintaldia bi urtez luzatzea, barne-funtzionamenduko protokoloak eguneratzea, 2010-2011rako Ekintza-plana ezartzea, lan-ildoak lehenestea eta kuotak zehaztea.

Gizarte Ekonomiaren Europako biltzarraren kariatara SEeko presidentek Toledon egin zuten lehen bilera izan zen SEEren barne-antolakuntzaren une garrantzitsua.

SEEren jardueren ibilbide-orria prestatu zen. EB 2020 Estrategian Gizarte Ekonomia aintzat hartzeko lan egitea da orri horren ardatz nagusia, eta horretarako, EB 2020 Estrategiari buruzko Europar Batzordearen kontsultarako erantzun bat prestatu da.

Halaber, Gizarte Ekonomiarako interesgarriak diren beste zenbait biltzarren prestaketaren jarraipena egin du, hala nola pobreziari eta gizarteratzeari buruzko biltzarra, edo interes orokorreko gizarte-zerbitzuei buruzko hirugarren foroa.

SEEk gizarte-berrikuntzaren esparrua eta gizarte-enpresaren identifikazioa ere landu ditu.

3.3. TEES PROIEKTUA (GIZARTE EKONOMIA ETA EKONOMIA SOLIDARIOAREN MUGAZ GAINDIKO SAREA)

2010ean, ANEL - Nafarroako Lan Elkarte eta Kooperatiben Elkartearekin eta CRESS Aquitaine, Chambre Régionale Economie Sociale et Solidaire-ekin lankidetzan, KONFEKOOPEK TESS Proiektuko edukiak betetzeko lan handia egin du. Horrela, Gizarte Ekonomiako enpresekin mugaz gaindiko lankidetzaren sendotu du jarduera ekonomikoaren, berrikuntzaren eta giza kapitalaren esparruan.

Planifikaturiko ekintzak hiru taldetan bereiz daitezke:

- Hiru lurraldeetako Gizarte Ekonomiaren diagnostikoa eta Behatokia.
- Jardunbide egokien trukea.
- Gizarte Ekonomiaren zabalkunde eta komunikazio-plana.

Urriaren 15ean, “Gerenteen Eskola” jardunbide egokiaren barruan, lehen “azterketa-bisita egin zen Nafarroara. Ondoren, azaroaren 4an eta 5ean, Vitoria-Gasteizen “truke-tailerra” egin zen. Bertan, enpresen sorrera, sustapena, eta Gizarte Ekonomian eraldatzeko prozesuak jorratu ziren, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan eta Akitanian dauden Gizarte Ekonomiaren inguruko politika publikoak ere.

Eta abenduaren 15ean, “azterketa-bisita” bat egin zen Baionara, Atherba elkartera, Garroko Elkartera eta Amap Elkartera. Bisita horietan Zirkuitu Laburren sistema aztertu zen.

IKUSKATUTAKO 2010EKO KONTUAK

BALANTZE LABURRA

AKTIBO EZ-ARRUNTA	407.625,95
Ibilgetu ukiezina	4.057,41
Ibilgetu materiala	12.134,79
Bazkidetutako eta Taldeko enpresetan epe luzera egindako inbertsioak	385.112,80
Epe luzerako finantza-inbertsioak	6.320,95
AKTIBO ARRUNTA	1.762.027,50
Zordun komertzialak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk	261.933,86
Zerbitzu eskaintzagariko bezeroak	14.510,99
Beste hainbat zordun	582,72
Diru-laguntzengariko beste zordun batzuk	98.040,32
Beste kreditu batzuk Administrazio publikoekin	148.799,83
Epe motzeko finantza-inbertsioak	1.100.000,00
Eskudirua eta antzeko beste aktibo likidoak	400.093,64
AKTIBOA GUZTIRA	2.169.653,45

ONDARE GARBIA	1.932.381,13
Fondo propioak	1.900.701,13
Erreserbak	1.850.287,26
Ekitaldiko emaitza	50.413,87
Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta ondareak	31.680,00
PASIBO EZ-ARRUNTA	134.494,70
Kooperatiben Azkentzeen Ezarpen Fondoak	134.494,70
PASIBO ARRUNTA	102.777,62
Hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk	102.777,62
Hornitzaileak	27.827,80
Hornitzaileak, bazkidetutako eta taldeko enpresak	67.400,78
Beste hainbat hartzekodun	2.871,64
Beste zor batzuk Administrazio publikoekin	4.677,40
PASIBOA GUZTIRA	2.169.653,45

IRABAZIEN ETA GALEREN KONTU LABURRA

USTIAPENAREN EMAITZA	35.762,64
Negozio-kopuruaren zenbateko garbia	113.255,43
Jarduera propioen diru-sarrerak	94.043,56
Zerbitzuen eskaintza	19.211,87
Jarduera propioen egozpenak	5.291,82
Egozpenen diru-sarrerak	83.432,50
Egotzi beharreko gastuak	-78.140,68
Ustiapenaren beste diru-sarrera batzuk	367.103,79
Ustiapenaren diru-laguntzak	161.576,89
Programa berezien diru-laguntzak	205.526,90
Langile-gastuak	-49.168,34
Ustiapenaren beste gastu batzuk	-393.169,09
Kanpoko zerbitzuak	-98.328,04
Zerga-ordainak	-2.566,15
Dedikazioa	-90.924,27
Ordezkaritza	-59.733,99
Afiliazio kuotak	-17.865,52
Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk	-45.180,40
Programa berezien beste gastu batzuk	-78.570,72
Ibilgetuaren amortizazioa	-7.361,36
Ibilgetu ukiezina	-1.682,16
Ibilgetu materiala	-5.679,20
Finantza ibilgetuaren eta beste batzuen diru-laguntzen egozpena	0,00
Egotzi beharreko diru-laguntzen diru-sarrera	348.520,26
Egotzi beharreko diru-laguntzen gastua	-348.520,26
Beste emaitza batzuk	-189,61
FINANTZA-EMAITZA	14.651,23
Diru-sarrera finantzarioak	14.651,23
Finantza-gastuak	0,00
ZERGEN AURRETIKO EMAITZA	50.413,87
Etekinaren gaineko zerga	0,00
EKITALDIKO EMAITZA	50.413,87